

## **EZKONTZAKO**

### **SAKRAMENDUA**

### **MEZAREKIN**

Mezaren hasia

Hitzaren liturgia

Ezkontzako sakramendua

Eukariztiaren liturgia

Mezaren bururatzea

## SARTZEA

### **ONGI ETORRIA**

Ezkongaieri ongi etorria bi moldetan egin daiteke:

A- Elizako ateetan hitz batzu erranez, eta gero, apezaren ondotik proosonean sartzen dira ezkongaiak eta heien lekukoak. Kantu bat eman daiteke hor edo organoa bakarrik.

B- Ezkongaiak igurikatzen ditu apezak beren jarleku aitzinean. Heiekin hitz batzu eginik, aldareari musu eman-eta, badoa bere lekurat

### *Agurra*

Aitaren eta Semearen.....

Jesu Kristo gure Jaunaren grazia, eta Jainko Aitaren maitasuna eta Izpiritu Sainduaren batasuna izan bedi zuekin.

Eta zure Izpirituarekin

### *Edo*

Jaungoiko gure Aitaren eta Jesu Kristo gure Jaunaren grazia eta bakea zuekin.

Benedikatua Jaungoikoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

### *Edo*

Jauna zuekin

Eta zure Izpirituarekin

### *Edo*

Ezkonduen batasuna Kristoren eta Elizaren batasunaren seinale egin duen Jainko gure Aitak eman diezazuela grazia eta bakea.

Benedikatua Jaungoikoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

Gero hitz batzu erraiten ditu apezak denen laguntzeko elizkizunean parte hartzen. Hemen diren bietarik bat, edo beste bat berak prestatua

Haurride maiteak, pozik etorri gira Jainkoaren etxerat, ospakizun huntan parte hartzera:

I... eta I... laguntzen ditugu beren etxea eraiki nahi duten egunean: badakigu garrantzia handikoa dela memento hau esposgai hauentzat.

Lagunt ditzagun gure amodioaz eta otoitz kartsuaz.

Hauekin batean artoski entzun dezagun

Jainkoak gaur erraiten daukuna.

Eliza sainduarekin batean, Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, otoitz egin diezogun Jainko gure Aitari :

ongi etorri goxoa egin diezoten ezkongaieri,

benedika ditzan eta betikotz bat egin.

*Edo*

I... eta I..., Elizak zuen bozkarioan parte hartzen du,  
 eta ongi etorri egiten zueri, zuen familiako eta laguneri,  
 Jainko Aitaren aitzinean  
 zuen bizi guziko batasuna finkatu nahi duzuen egunean.  
 Jaunak entzun ditzala zuen otoitzak besta haundi huntan.  
 Zerutik igor diezazuela bere Izpiritua ,  
 bere indarraz bete eta geriza zaitzaten.  
 Eman diezazuela zuen bihotzak igurikatzen eta eskatzen duena.

*Ohart huni* : Ez da egiten bekatuen urrikirako otoitza, baina bai AINTZA erraiten edo kantatzen

Aintza zeruetan Jaungoikoari.  
 Eta bakea lurrean haren gogoko gizoneri.  
 Hain haundi eta eder zaitugulakotz, gora zu, benedikatua zu.  
 Gorespen zuri, ahuspez agur, eskerrak zuri.  
 Jainko Jauna, zeruko Errege, Jaungoiko Aita guziahalduna.  
 Jauna, Seme bakar, Jesu Kristo.  
 Jainko Jauna, Jainkoaren Bildots, Aitaren Seme.  
 Zuk kentzen duzu munduko bekatua, urrikal, Jauna.  
 Zuk kentzen duzu munduko bekatua, entzun gure deia.  
 Aitaren eskuinaldean jarririk zaude zu, urrikal, Jauna.  
 Zu bakarrik Saindua, zu bakarrik Jauna,  
 Zu bakarrik Goigoikoa, Jesu Kristo,  
 Izpiritu Sainduarekin, Jainko Aitaren argitan. Amen

### **OTOITZA**

Hemen direnetarik bat hauta.

- 1** Jainko Jauna, zuk, ezkontzako lokarria  
 sakramendu eder batez sagaratu duzu,  
 Jesu Kristoren eta Elizaren misterioa adiaraz dezan.  
 Egizu bada, zure bi zerbitzari hauek  
 fedez sinesten dutena egitez bete dezaten.  
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
 Zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean,  
 Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldi guzietan.

4

- 2 Jainko Jauna, zuk, gizakia eginez,  
gizonaren eta emaztearen batasuna nahi izan duzu.  
Ezkontzako hitzez bat eginen diren I... eta I...  
jos ditzazu amodio bakarraren lokarriaz :  
egizu, maitasunezko fruitu ederrak emanaz  
zure maitasunaren lekuko izan ditezen.  
Zure Seme...
- 3 Entzun, Jauna , gure otoitzak :  
guziz ona baitzira, ixur zure grazia I... eta I...-ren gainera ,  
zure aldarearen aitzinean batetarutzen direnak  
elkar-maitasunean finka ditezen.  
Zure Seme...
- 4 Jainko ahalguziduna,  
ezkontzako sakramenduaz bat eginen diren I... eta I...-rentzat  
otoizten zaitugu : finka ditezela aitortzen duten fedean,  
eta hauen haurrak fededun izan ditezela Elizaren pozgarri.  
Zure Seme...
- 5 Entzun, Jauna, gure otoitzak,  
eta arta handiz begira zazu  
gizadiaren garapenerako ezarri duzun ezkontza;  
zure graziak zaint dezala bere hastapena zureganik duena.  
Zure Seme...
- 6 Jainko gure Jauna,  
munduaren haste hastetik gizadia benedikatu duzu  
emankor izaiteko grazia emanik.  
Entzun, otoi, gure eskariak, eta ixur I... eta I... zure zerbitzarien gainera  
zure benedizione nasaia :  
Emozute batasunean bizitzea, gogoz eta bihotzez bat,  
saindutzeko gutizia berarekin .  
Zure Seme...
- 7 Jainko gure Aita, erakutsi daukuzu zenbat maite gaituzun  
bere bizia guretzat eman duen zure Semea gutarterat igorritz.  
Egun, I... eta I...-rentzat otoizten zaitugu :  
Jesu Kristo gure Jauna hauiekin izan dadin orai,  
eta bat besteari betikotz emaiten lagunt ditzan.  
Zurekin eta ...

- 8 I... eta I... zure aitzinera etorri diren une huntan,  
otoizten zaitugu, Jauna :  
Bihotzak bat bestearen amodioaz jadanik beteak dauzkate,  
bainan amodio hori zure eskuetan ezarri nahi dute,  
eta konsekra dezazun eskatzen dautzute.  
Zure aitzinean elkarri emanen duten hitzaren iturri izan zaite,  
hauien biziak diraueno begiratu beharko baitute.  
Emozute leial izaitea, zu leial ziren bezala :  
batasun hau betikotz indarrez betea izan dadila.  
Emozute elkar maitatzea, zuk maite dituzun bezala :  
hauien amodioa beti berri izan dadila.  
Zure Seme...
- 9 Jainko Jauna, I... eta I...-rekin bildu gaituzu :  
eliza huntarat etorri dira beren amodioa zuri gomendatzera,  
bai eta galdatzera benedika dezazun.  
Zuhaur izan zaite gurekin hauen besta huntan :  
Lagunt gaitzazu otoitzean ekartzen  
hauen aldera dugun amodioa.  
Argi gaitzazu, zure Hitzaren baitan konpreni dezagun  
ezkontza zein handi eta saindu den.  
Egizu esker onean handi dadin hemen izaiteko dugun bozkariora.  
Zure Seme.....

## HITZAREN LITURGIA

Hitzaren Liturgia beti bezala egiten da : bi edo hiru irakurgai har daitezke. Hiru egiten badira, lehena  
Testamendu Zaharretik hartu behar da, edo , Bazko denboran Apokalipza liburutik. Azkena,  
aldiz, beti Ebanjeliotik hartu behar da. Irakurgai batek bederen beti ezkontza aipatu behar du.

Irakurgaiak 53 - 76 orrialdeetan dira.

Homilia

Fedearen aitormena

Egin daiteke, konbeni balinbada. Hiru molde badira : edo Bazko gauean bezala galdeak eginez,  
edo igandetan bezala "Sinesten dut"-a erranez. Ikus 77, 78, 79 orrialdeak

## SAKRAMENDUA

Ezkontza bat baino gehiago egiten badira batean, apezaren galdeak, baiaren emaitza, hitzen finkatzea eta eraztunen benedikatzea, kuple bakotxarentzat berex egiten dira. Gainerako otoitzak, aldiz, mezan gaindi, pluralean egiten dira.

### ***EZKONGAIEKIN ELKARRIZKETA***

Denak xutik, lekukoak ezkongaien bi aldeetan. Apeza ezkongaiari mintzo da, hitz hauek edo beste batzu erranez :

Adiskide maiteak ( edo I.. eta I...), eliza huntarat etorri zirezte,  
Jaunak berak finka dezan zuen ezkontzeko xedea  
Elizaren zerbitzari apezaren eta elkarte guziaren aitzinean.  
Kristo Jaunak zuen ezkont-amodioa nasaiki benedikatzen du  
ezkonduen laguntzeko elkarri beti leial egoiten,  
eta elkarrekin ezkontzaren eginbideen betetzeko,  
sakramendu berezi baten bidez aberasten  
eta indarrez betetzen ditu bataioaz jadanik kontsekratu dituenak.  
Horra zergatik orai galdatzen dautzuetan  
zuen xedea ager dezazuen Elizaren aitzinean.

<sup>0</sup>Orduan galdeak egiten diozkate ezkongaiari beren hautuaren libertateaz, leial egoiteaz, haurren onartzeaz eta altxatzeaz. Bakotxak berex ihardesten du. Bi molde badira horren egiteko :

### *Lehen Moldea*

I... eta I... Jainkoaren Hitza entzun duzue :  
adiarazi dauku zer gauza handia den giza-amodioa eta ezkontza.  
Elkarri zuen hitza emanen duzue ezkontzan :  
zuen gogoz eta nahiz nehork hertsatu gabe ote da ?

Bakotxak berex ihardesten du : **Bai**

Ezkontzaren bidea hartuz, hitz emanen duzue  
Elkarri leial, eta elkar lagunduz egonen zireztela zuen bitzitze guzian?

Bakotxak berex ihardesten du : **Bai ( bizi guziko )**

[Prest ote zirezte Jainkoak emanen dauzkitzuen haurren onartzera,  
eta Kristoren Ebanjelioaren arabera  
eta Elizaren fedean heien altxatzera? ]

Bakotxak berex ihardesten du : **Bai**

Beste galde hau ere egin daiteke:

Prest zirezte zuen giristino eginbidea elkarrekin betetzera  
munduan eta Elizaren baitan?

Biek batean : **Bai**

**Bigarren  
moldea**

Apeza batzarrari mintzo da :

Entzule maiteak, I... eta I...-rekin entzun dugu Jainkoaren hitza :  
adiarazi dauku zein haundia den giza-amodioa eta ezkontza.

Ezkontzak gauza hauek eskatzen ditu :

Ezkon-lagunek librokari eta nehork bortxatu gabe elkarri hitza emanik,  
elkarri amodio eta errespetu ekarriko diotela hitzeman dezaten,

( Jainkoak emanen diozkaten haurrak onar ditzaten,  
eta Kristoren Ebanjelioaren arabera Elizaren fedean altxa) .

Gero ezkongaiari galdatzen diote :

I... eta I..., nahi duzue hola bizi elkarrekin ?

Bakotzak berex ihardesten du : **Bai**

Beste galde hau ere egin daiteke :

Prest zirezte zuen giristino eginbidea elkarrekin betetzera  
munduan eta Elizaren baitan ?

Biek batean : **Bai**

**DEIA ELKARRI BAIA EMAN AITZIN**

Apezak ezkongaiak deitzen ditu elkarri eskua emaitera baia eman aitzin : formula hautarik bat hauta.

- 1 Orain bada, ezkontzaz bat egin nahi duzuenaz geroz,  
eman elkarri eskuak eta zuen baia Jainkoaren eta Elizaren aitzinean.
- 2 Hemen diren guzien, Jainkoaren eta Elizaren aitzinean  
eman elkarri eskuak eta erran zuen baia.
- 3 Jainkoa da zuen amodioaren iturria,  
eta beti zuekin izanen duzue :  
haren eta hemen diren guzien aitzinean  
eman elkarri eskuak eta zuen baia.
- 4 Kristorekin bat izan zaitezten,  
eta zuen amodioa, hari esker,  
guzientzat Jainkoaren maitasunaren ezaugarri izan dadin,  
hemen bildua den Elizaren aitzinean  
eman elkarri eskuak eta zuen baia.

**EZKONGAIEK ELKARRI BAIAREN EMAITEA**

Ezkongaiek elkarri esku eskuina emaiten diote, eta baia erraiten, hemen diren hiru formulatarik bat hartuz, deusik aldatu gabe :

**1**

Senargaiak :

Nik, I...k , hartzen zaitut zu, I... , emaztetzat eta zuri leial egonen naizela hitzemaiten, zorionean eta zoritxarrean, osasunean eta erialdian, Zure maitatzeko nere biziko egun guzietan

Andregaiak :

Nik, I...k, hartzen zaitut zu, I..., senartzat eta zuri leial egonen naizela hitzemaiten, zorionean eta zoritxarrean, osasunean eta erialdian, zure maitatzeko nere biziko egun guzietan.

**2**

Senargaiak :

I... nahi duzu izan nere emazte ?

Andregaiak :

Bai ( nahi dut )

Eta zuk, I... , nahi duzu izan nere senar ?

Senargaiak :

Bai ( nahi dut ).

Nik, I...k, hartzen zaitut zu, I..., emaztetzat, eta izanen naiz zure senar.

Hitzemaiten dautzut leialki maitatuko zaitudala zorionean eta ezinbertzean nere bizi guzian.

Andregaiak :

Nik, I...k, hartzen zaitut zu, I..., senartzat, eta izanen naiz zure emazte.

Hitzemaiten dautzut leialki maitatuko zaitudala zorionean eta ezinbertzean nere bizi guzian.

**3**

Senargaiak :

I..., nahi duzu izan nere emazte ?

Andregaiak :

Bai, nahi dut izan zure emazte.

Eta zuk, I... nahi duzu izan nere senar ?



Senargaiak :

**Bai, nahi dut izan zure senar.**

Andregaiak :

**Hartzen zaitut senartzat eta zurea izan nahi dut.**

Gizongaiak:

**Hartzen zaitut emaztetzat, eta zurea izan nahi dut.**

Biek batean :

**Elkar leialki maita dezagun  
atseginean eta atsegabeen,  
elkar laguntzeko gure bizi guzian.**

#### 4

Hiru molde horiek ezin erranak balinbadira ezkongai zenbaitentzat, edo beste arrazoin pastoral baten gatik, apezak beren baia eska diezaieke galde hauk eginez :

Lehenik senargaiari :

**I..., nahi duzu I... hartu emaztetzat,  
eta hitzemaiten duzu hari leial egonen zirela  
Zorionean eta zoritxarrean, osasunean eta erialdian,  
haren maitatzeko eta errespetatzeko zure biziko egun guzietan ?**

Senargaiak ihardesten du :

**Bai**

Gero andregaiari :

**I..., nahi duzu I... hartu senartzat,  
eta hitzemaiten duzu hari leial egonen zirela  
zorionean eta zoritxarrean, osasunean eta erialdian,  
haren maitatzeko eta errespetatzeko zure biziko egun guzietan ?**

Andregaiak ihardesten du :

**Bai**

#### ***HITZEN FINKATZEA***

Gero apezak ondoko hitzak erraitean jestu berezi bat egin dezake hautura :

- a. Esku eskuina heda ezkondueri buruz
- b. Esku eskuina pausa ezkonduen esku juntatuen gainean

Erraiten diote :

**Elizaren aitzinean eman duzuen hitza  
Jaunak finka dezala  
eta bere benedizioez bete zaitzatela.  
Jainkoak bateratu duena, gizakiak ez beza berex.**

#### ***Edo***

**Elizaren aitzinean elkarri eman duzuen hitza  
gure lehen burasoak parabisuan bat egin zituen Jainkoak**

Abrahamen, Izaaken eta Jakoberen Jainkoak  
finka eta benedikata dezala Kristoren baitan.  
Jainkoak bateratu duena, gizakiak ez beza berex.

***ERAZTUNEN BENEDIKATZEA ETA EMAITEA***

Apezak eraztunak benedikatzeko ditu, hemen diren lau otoitzetarik bat hartuz:

**1**

Jaunak benedikata ditzala + eraztun hauk  
elkarri emanen dituzuenak amodio eta leialtasun seinale bezala.

Amen

**2**

Jauna, benedikata-zkitzu  
zure izenean benedikatzeko + ditugun eraztun hauk.  
Emozute I... eta I...-ri elkarri osoki leial egoitea,  
zure nahia eginez bakean irautea,  
eta beti elkarren amodioan bizitzea.

Amen

**3**

Jauna, benedikata + eta saildu-zkitzu  
I... eta I... zure zerbitzariak beren amodioan.  
Eraztun hauk izan ditezela haurtzat  
leialtasun seinale eta elkarren amodioaren oroigarri.

Amen

**4**

Jainko gure Jauna,  
gurekin batasun egin duzu Jesu Kristoren bitartez :  
benedikata-zkitzu + orai eraztun hauk;  
I... eta I...-rentzat izan ditezela  
beren leialtasunaren seinale, eta amodioaren oroigarri.

Amen

Nahi bada, ur benedikatuarekin ihintza daitezke, eta gero ezkonberrieri emaiten dira.  
Gizonak emaztearen errian ezartzen du, erranez ( nahi bada )

I... har-azu eraztun hau  
nere amodioaren eta leialtasunaren seinale.  
( Aitarekin eta semearen eta Izpiritu Sailduaren izenean.)

Gero emazteak berdin:

I... har-azu eraztun hau  
nere amodioaren eta leialtasunaren seinale.  
( Aitarekin eta Semearen eta Izpiritu Sailduaren izenean.)

***EZKONBERRIEN BENEDIKATZEA***

Benedikatze hori GURE AITAREN ondotik emaiten da; bainan, pastoral arrazoinak balinbadira hemen egin daiteke. Ikus 18,19 orrialdeak.

***GORESMEN KANTUA***

Esker onezko kantu bat eman daiteke, edo organoa jotzen da.

***EZKONBERRIEN OTOITZA***

Ezkonberriek nahi badute otoitz bat erran dezakete, beren hautuzkoa, edo hemen direnetarik bat hartuz

- 1 Jainko Jauna, batasun guzien Aita, otoitz egiten dautzugu:
- eskerrak emaiten daukitzugu, zuk eman baitaukuzu elkar kausitzea eta zure so amultsuaren gerizan gure amodio bidearen egitea.
  - eskerrak gure buraso, familia, lekuko, adiskideengatik, bai eta gure bidean biziaren seinale eta maitasunaren lekuko izan diren guziengatik.

Jesus Jauna, otoitz egiten dautzugu :

- egun, zure bidez eskaintzen dugu emana izan eta izanen zaikuna : gure biziak, gure familia berria, ( eta igurikatzen ditugun haurrak) :
- badakizu gure muga eta ahulezien berri : zure grazia eta barkamendua ardiets ditzagula.

Aitaren eta Semearen Izpiritua, Maitasunaren Izpiritua, otoitz egiten dautzugu:

- egizu erne ibil gaiten zuk munduan egiten duzunaren ikusteko, eta emaguzu elkarren sustengu izaitea.
- berri zazu gure baitan Jesus Jaunari leial izaiteko eta haren ondotik ibiltzeko xedea.

Jainkoaren eta gure Ama den Birjina Mariak, emazte guzien artean benedikatua denak guretzat otoitz egin diezola bere Seme maiteari gaur eskatzen duguna ardiets dezagun.

Amen

- 2 Gure Jainko Jauna, zorion egun huntaraino ekarri gaituzu,  
eta gure esker ona erran nahi dautzugu.

Bat bestearen gomendio eman gaituzu :  
orai, elkarrekin gure amodioa gomendatzen dautzugu.

Jauna, hau dautzugu eskatzen: bat atxik gaitzazu, zure bakean.  
Zaint zazu gure ezkontza.

( Emaguzu haurren onartzeko bozkarioa )

Idek gure bihotzak besteeri.

Emaguzu leial egoitea gure biziak diraueno.

Eta egun batean har gaitzazu zure maitasunaren Erreinuan,  
han gorets zaitzagun zorionean eta bakean.

Amen

- 3 Jainko Jauna, zure maitasuna leiala da :  
sinesten dugu deitzen gaituzula  
elkarrekin zure maitasunaren seinale izaitera.

Jainko Jauna, zure herriarekin egin duzun batasuna itzalik gabekoa da :  
sinesten dugu deitzen gaituzula  
giza amodioa zein handia den aitortzera.

Jainko Jauna, zure presentzia gure ondoan gauza segura da :  
sinesten dugu deitzen gaituzula  
zureganako bidean elkarren laguntzera.

Jainko Jauna, guretzat duzun maitasun samurrak mugarik ez du:  
sinesten dugu deitzen gaituzula  
gure bizia maitasun eskaintza egitera.

### ***FEDEDUNEN OTOITZA***

Apezaren deia:

Besta huntako bozkarioan gaudela,  
otoitz egin diezogun konfiantzarekin Jaunari  
ezkonberrientzat, hemen bilduak girenentzat  
Elizarentzat eta munduarentzat.

*Edo*

Haurride maiteak,  
bere graziaren eta maitasunaren dohain bati esker,  
Jainkoak nahi izan du bere betera ekarri eta kontsekratu  
I... eta I -ren amodioa.  
Amodio hori ezar dezagun haren amodio samurraren baitan.

*Edo*

Haurride maiteak,  
gure otoitzez lagunt dezagun familia berri hau :  
Jainko guziz onak handiaraz dezala hauen amodioa,  
eta munduko familia guziera eman bere laguntza.

Huna otoitz xede batzu; beste batzu kausituko dituzu 85-86 orrialdeetan. Edo ere zuhauk molda ditzazkezu. Ihardespena : har usaiakoetarik bat.

- 1 Ezkonberrientzat eta hauen familiaren zorionarentzat,  
egin dezagun otoitz
- 2 Hauen etxeko eta lagunentzat, eta lagundu dituzten guzientzat, e.d.o.
- 3 Ezkontzari buruz prestatzen ari direnentzat,  
eta Jaunak beste bokazione batera deitzen dituen guzientzat, e.d.o.
- 4 Munduko familia guzientzat,  
eta nazioeen arteko bakea finka dadin, egin dezagun otoitz
- 5 Gure familietarik joanak ditugunentzat, eta hil guzientzat e.d.o.
- 6 Jainkoaren herri saindua den Elizarentzat,  
eta giristino guzien arteko batasunarentzat, egin dezagun otoitz

Apezak bururatzen du erranez :

Jainko guziz amultsua, batasun guzien baitan zirena,  
entzun, otoi, gure galdea  
I... eta I...k ezkontzaz bat egin duten huntan,  
eta bete-zkitzu zure Izpirituaz.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

*Edo*

Zure bihotz onean, Jauna,  
ixurazu, otoi, ezkonberri hauen gainera zure maitasun Izpiritua.  
Zinez bihotz bat eta arima bat izan daitezen,  
zuk bat egin ditutzunak deusek ez ditzala berex,  
ez eta atsegabetu zure benedizioneaz bete ditutzunak.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

## EUKARIZTIAREN LITURGIA

Ezkonberriek ogia eta arnoa aldarera ekar ditzakete, hala nahi bada, eta gero beren lekura itzultzen dira

### *ESKAINTZEN GAINEKO OTOITZA*

- 1 Onar zazu, Jauna,  
lege saindu batek sagaratu duen ezkontzaren alde  
egiten dautzugun oparia;  
eta zu horren egilea zirenaz geroz,  
izan zaite ere laguntzailea.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
- 2 Har, Jauna, begi onez  
guk bozkarioan egiten dautzugun eskaintza:  
Zaint-zkitzu zure aita bihotzez I... eta I...  
ezkontzako sakramenduaz bat egin ditutzunak.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
- 3 Beha, Jauna, gure otoitzeri,  
eta har begi onez ezkonberri hauen alde egiten dautzugun eskaintza.  
Egizu, Eukariztia hunen bidez,  
elkarren arteko eta zugarako maitasuna  
azkar dadin hauen bihotzetan.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
- 4 Onar, Jauna, ezkonberrien alde eskaintzen dautzugun oparia.  
Hunen bidez gizadiaren eta zure arteko  
betiko maitasun Batasuna finkatu duzu:  
Eukariztiaren graziari esker,  
finka-zkitzu, otoi, I... eta I...  
elkarri betikotz hitzeman duten amodioan eta leialtasunean.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
- 5 Orai eskaintzen dautzugun oparia, Jauna,  
Kristok zuretzat eta guretzat duen  
maitasunaren froga gorena denaz geroz,  
saindu dezala I... eta I...-ren ezkontza,  
elkar maita dezaten Jesusek maitatu dituen bezala.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**PREFAZIOA****1** Ezkontzako batasunaren duintasuna

Bai, egoki da eta zuzen,  
 beti eta nonahi zuri eskerrak emaita, Jauna,  
 Aita guziz saindu, Jainko ahalguzidun betierekoa.  
 Zuk josi duzu ezkontzako batasuna maitasunaren uztarri gozoaz  
 eta bakearen lokarri ezin hautsizkoaz.  
 Hola, kristau familietan sortuko diren haurren bidez,  
 zure seme-alaben taldea emendatu nahi izan duzu.  
 Gutaz duzun artari esker, Jauna, eta zure graziaz,  
 bi gauza hauek harrigarriki emaiten dituzu:  
 gisa hortan, haurren sortzeak mundua du apaintzen,  
 eta haur horien sortze-berriak Eliza aberasten,  
 Kristo gure Jaunaren bitartez.  
 Haren bitartez, aingeruekin eta saindu guziekin,  
 zuri goresmen hau dautzugu beti eta beti kantatzen: **SAINDU...**

**2** Ezkontzako sakramenduaren handitasuna

Bai, egoki da eta zuzen,  
 beti eta nonahi zuri eskerrak emaita, Jauna,  
 Aita guziz saindu, Jainko ahalguzidun betierekoari,  
 Kristo gure Jaunaren bitartez.  
 Zuk, zure herriarekin batasun berri bat egin duzu,  
 eta Kristoren heriotze eta piztearen misterioaz erosi,  
 haren baitan bat izan zadin jainkozko izaitean,  
 eta haren aintzaren ondorekide zeruan.  
 Gizonaren eta emaztearen elgarretaratzea  
 zure grazia aberatsaren ezaugarri egin duzu,  
 gaur ospatu dugun sakramenduak  
 zure maitasunaren xede miresgarria gogora diezagun.  
 Horra zergatik, aingeruekin eta saindu guziekin  
 goresten zaitugun, beti eta beti kantari: **SAINDU...**

## 3

Ezkontza Jainkoaren maitasunaren ezaugarri

Bai, egoki da eta zuzen,  
 beti eta nonahi zuri eskerrak ematea, Jauna,  
 Aita guziz saildu, Jainko ahalguzidun betierekoa.  
 Zuk, gizakia bihotz onez egin ondoan,  
 mail harrigarri huntaraino altxatu duzu:  
 senar-emazteen bat egitea zure maitasunaren iduri egiteraino.  
 Maitez egin dituzunak, maitasun legera deitzen dituzu beti,  
 zure betiko maitasunean sarraraz ditzazun.  
 Eskerrak zuri, Jauna,  
 ezkontzako sakramenduak, zure maitasunaren seinale delarik,  
 gizon-emazteen amodioa saildu egiten baitu,  
 Kristo gure Jaunaren bitartez.  
 Haren bitartez, aingeru eta saildu guziekin,  
 Zuri, goresmen hau dautzugu beti ta beti kantatzen: SAINDU...

## 4

Jainkoa ezkonduenganik beti hurbil.

Bai, egoki da eta zuzen,  
 nonahi eta beti zuri eskerrak ematea, Jauna,  
 Aita guziz saildu, Jainko ahalguzidun betierekoa.  
 Zuk egin dituzu gizona eta emaztea zure idurira,  
 eta zuk eman diozute bihotzean  
 elkarri lotzen dituen amodioa, biak bat izan ditezen.  
 Beren biziko atsegabe eta atseginen bidez,  
 egun guzitako neke eta gertakari miresgarrien bidez,  
 adiarazten diozute beren ondoan zaituztela.  
 Beren amodioaren eta bizi guziko batasunaren bidez  
 hazten duzu heien baitan zure bizia,  
 esperantza gaindika beteko diozuten eguna arte,  
 Jesu Kristo zure seme maitearen baitan.  
 Eta orai zure maitasunaren misterioa  
 berriz ere gure aitzinean agertuko baituzu,  
 zure ondoan bizi diren guziekin batean,  
 goresten zaitugu aho batez kantari: SAINDU...



Esker onezko otoitzean, ezkonberriak aipa daitezke, hemen diren hitzak baliatuz.

### ***ESKER ONEZKO LEHEN OTOITZEAN***

Hitz hauen ondotik : “ *zure indar eta laguntza* ”

Huna hemen, Jauna, zure zerbitzarien eskaintza,  
eta bereziki I... eta I...-ren,  
eta horientzat otoizka dagon zure herri guziarena.  
Onar-zazu, beraz, bihotz onez,  
eta hauek ezkontzako egunera ekarri dituzun bezala,  
egizu  
( izan dezaten , zuk emanik, gutiziatzen duten familia eta )  
ardiets dezaten luzaz zorionean bizitzeko grazia.

### ***ESKER ONEZKO BIGARREN OTOITZEAN***

Hitz hauen ondotik: “ *eta eliz-gizon guziekin batean.*”

Gogoan izan ezkonberriak, I... eta I...:  
ezkontzako egun huntaraino erakarri dituzu;  
zure graziak eman diezotela bizi luze bat amodioan eta bakean.

### ***ESKER ONEZKO HIRUGARREN OTOITZEAN***

Hitz hauen ondotik:...” *eta zurea duzun herri osoa.*”

Indarrez bete-zkitzu ezkontzaren grazian I... eta I...:  
beren ezkontzako egun eder huntaraino gidatu dituzu;  
egizu, zure gerizapean, beren bizi guzian  
begira dezaten zure aitzinean eman duten hitza.

## **EZKONBERRIEN BENEDIKATZEA**

“Gure Aita”-ren ondotik egiten da. “ Atera gaitzazu “ eta “Zurea duzu” ez dira erraiten. Ezkonberriek ez badute kominiatzen, kakoen ( ) arteko hitzak ez dira erran behar. Eta berdin haurren galdearentzat, hala beharrean. Benedizione hori sei moldetan emana da: hauta bakotxari doakiona. Hemen , lehena eta laugarrena dira. Besteak ikus 80-84 orrialdeetan. Benedizioea eraztunen emaitzaren odotik egin bada, Gure Aita eta ondoko otoitzak ohi den bezala egiten dira.

### ***LEHEN MOLDEA***

Otoitzerako deia hitz hauekin edo beste batzuekin:

Otoitz egin diezogun Jainko Jaunari  
aldare aitzinean dauden ezkonberri hauientzat:  
Eska dezagun ( Kristoren gorputz-odolak harturik )  
beti elkarren maitasunean bizi ditezen.

Ixtant bat ixilik otoitz egin-eta, apezak segitzen du, eskuak hedatuz ezkonberrien gainera.

Aita guziz saildua,  
gizakia sortzean, gizon eta emazte egin duzu,  
gorputzez eta bihotzez bat izanik  
beren egitekoa bete dezaten munduan.  
Jainko Jauna, zure maitasun asmoak agertzeko  
nahi izan duzu gizonaren eta emaztearen amodioa  
zure herriarekin egin zinuen batasunaren ezaugarri izan zadin.  
Eta, nahi duzu ezkontzako sakramenduan ezkonduen batasunak  
Jesu Kristok Elizarekin duen ezkon-misterioa adiaraz dezan  
Benedika ditzazu, otoi, I... eta I...  
eta zure gerizapean harturik,  
ezar-azu hauen baitan zure Izpiritu Sainduaren indarra.  
Egizu, Jauna, orai hasten duten sakramenduzko batasun huntan,  
zure maitasun dohainak elkarri eman diezazkieten,  
eta zure presentziaren seinale izanez bat bestearentzat,  
bihotz bat eta arima bat egin ditezen.  
Emozute, beren lanaz ardieste  
sortzen duten familiaren hazteko behar dutena,  
( eta haurrak Ebanjelioko legean altxatzea,  
zeruko familiarako gai izan ditezen.)  
Emozu I...-ri ( emaztea ) zure benedizioaren betea,  
emazte (ta ama ) eginbideak betez,  
bere etxea amodio garbi eta goxoz bero dezan.

I... hau ere ( senarra ) benedika zazu  
 senar leialaren (eta aita zintzoaren ) egitekoa  
 gizonki bete dezan.  
 Aita guziz saildua, emozute bieri  
 ( zure mahain saildura gogotik heldu direnaz geroz )  
 egun batez zeruko mahainean bozkariotan jartzeko grazia.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen

### **LAUGARREN MOLDEA**

Ezkonberriek kominiatzen dutelarik bakarrik erabiltzen dena.  
 Otoitzerako deia hitz hauekin, edo beste batzuekin.

Haurrideak, eska diezogun Jainkoari  
 ezkonberri hauk benedika ditzan  
 Jesu Kristoren gorputza (eta odola) hartzera doatzilarik.  
 Ixtant bat ixilik egon eta, eskuak ezkonberrien gainera hedatuz.

Jaungoiko gure Jauna,  
 beren izenez deitu dituzu I... eta I...,  
 elkarri beren buruak emanaz,  
 biak gorputz bat eta izpiritu bat izan ditezen.  
 Emozute zure Semearen gorputza,  
 hari esker loratuko baita haien batasuna.  
 Zu zira haien amodioaren iturria,  
 zuk duzu haien baitan ezarri bihotzean duten zorion egarria;  
 ( emozute zure Semearen odola  
 beren amodioa eta bozkarioa saildutuko dituen.)  
 Biziaren ogia ( eta benedizionearen odola ) hartuz,  
 ikas bezate beren bizia besteentzat emaiten:  
 zure Izpiritu Sailduaren gidapean :  
 ( haz bitzate Ebanjelioaren bidean leial  
 beren amodiotik sortuko zaizkien haurrak; )  
 bila bezate lehen lehenik Jainkoaren Erreinua  
 eta haren zuzentasuna;  
 izan ditezela beren ingurukoen laguntzaile;  
 egin diezaiela ongi etorri behartsueneri;  
 bizi ditezela beti zuri eskerrak emanaz,  
 eta maiz etor hunarat beren batasuna berritzera  
 Jesu Kristoren gorputz hiletarik piztua hartuz.  
 Haren bitartez otoitz egiten dautzugu:  
 harek zituen Kanako ezteiak saildutu,  
 harek bere Eliza garbi egin , hunentzat bere burua emanaz.

Badakigu zure ondoan dugula  
 I... eta ... gure adiskideentzat otoitzean ari ,  
 orai, bihar eta hauien biziko egun guzietan,  
 betiereko biziraino.  
 Amen.

“ *Jesu Kristo gure Jauna* ” otoitza ez da erraiten, baina segidan “ *Jaunaren bakea* ”, eta orduan ezkonberriek eta guziek elkarri bakea emaiten diote, ohiduren arabera.

Behar bada, eta konbeni bada, ezkonberriek ( eta besteek ere ) kominia dezakete Kristoren gorputz odolak hartuz.

### **KOMINIONE ONDOKO OTOITZA**

Hemen direnetarik bat hauta.

- 1 Opari hunen indarrak, Jauna,  
 lagunt dezala zuk sortu duzun bizi-bide hau;  
 ezkontzako batasunean elkarretaratu dituzunak  
 ( eta janari-edari berean ase )  
 amodio berean bihotz bat egin ditzazu.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
  
- 2 Zure mahain saindutik jan dugunek,  
 eskatzen dautzugu, Jauna :  
 ezkontzako sakramenduan bat egin duten hauieri  
 emozute beti zuri loturik egoitea  
 eta zure maitasunaren lekuko izaitea munduan.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
  
- 3 Jainko ahalguziduna, egizu,  
 zure zerbitzari hauien baitan handi dadin  
 hartu duten ezkontzako sakramenduaren grazia.  
 Eta gu guziek bil ditzagula  
 eskaini dugun eukariztiaren fruituak.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
  
- 4 Jauna, mahain saindu huntan eskaini dauzkiguzu  
 biziaren ogia eta benedizione guzien kalitza:  
 betiko Batasunerako  
 emana den gorputzak, eta ixuria den odolak  
 finka dezatela I...-ren eta I...-ren batasuna,

eta berri gure baitan zureganako leialtasuna.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

- 5 Jauna, I...ri eta I...ri eman diozute  
Kristoren gorputzean ezartzea beren fidantzia  
hauen bat egitea benedikatu duzun egun huntan.  
Egizu, beren ezkontzako graziak indarrez bete ditzan  
elkarrekilako bizitzeak diraueno :  
eta zure maitasunean erroak egin dituen hauen zoriona  
izanen da denentzat zuri eskerren emaitako parada.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

## **OSPAKIZUNAREN BURURATZEA**

### **AZKEN BENEDIZIONEA**

Meza bururatzean, apezak ezkonberriak eta jendea benedikatzten ditu, hemen emanak diren sei  
otoitzetarik bat hartuz.

- 1 Jainko Aita betierekoak begira zaitzatela  
biak bat amodio berean ,  
Kristoren bakea zuen baitan izan dadin,  
bai eta zuen etxean ere beti.  
Amen.  
Izan ezazue [benedizione seme-alabetan, ]  
atsegin eta laguntza adiskideenganik,  
eta egiazko bakea denekin.  
Amen  
Izan zaitzte Jainko-maitasunaren lekuko munduan,  
zuen bihotz ona jastatuko duten pobre eta nahigabetuek  
esker onez ongi etorri egin diezazuen  
egun batez, Jainkoaren betiko etxean.  
Amen  
Eta hemen zirezten guziak ere  
benedika zaitzatela Jainko ahalguzidunak,  
Aitak eta Semeak eta Izpiritu Sainduak.  
Amen

- 2      Jainko Aita ahalguzidunak  
eman diezazuela bere bozkarioa,  
eta benedika zaitzatela ( zuen haurretan ).  
          Amen  
Jainko Seme bakarrak begira eta zaint zaitzatela  
zorionean eta zoritxarrean.  
          Amen  
Jainko Izpiritu Sainduak ixur dezala beti  
bere benedikapena zuen bihotzetara.  
          Amen  
Eta zuek, hemen zirezten guziak ere,  
benedika zaitzatela Jainko ahalguzidunak,  
Aitak eta Semeak eta Izpiritu Sainduak.  
          Amen
- 3      Kanako ezteietarat joan zen Jesus Jaunak  
benedika zaitzatela zuek, eta zuen ahaide-adiskideak.  
          Amen  
Eliza azkeneraino maitatu zuenak,  
berak ixur dezala beti bere maitasuna zuen bihotzetara.  
          Amen  
Jaunak eman diezazuela  
haren piztearen lekuko izaitea,  
eta hitzeman daukun zoriona pozik igurikatzea.  
          Amen  
Eta zuek, hemen zirezten guziak ere benedika zaitzatela  
Jainko ahalguzidunak, Aitak eta Semeak eta Izpiritu Sainduak.  
          Amen
- 4      Jainko Jaunak begira zaitzatela biak bat amodio berean,  
eta handiaraz dezala ere harenganik daukazuen amodio hori.  
[ Zuen haurrak izan ditezela zuen etxearen benedizione,  
eta neurririk gabe ordain diezazuela  
zuenganik ukanen duten bozkarioa.]  
Kristo Jaunaren bakea dagola beti zuen etxean,  
eta zuen bien artean.  
Benedikatua izan bedi zuen bien lana,  
bizi huntako griñek etsiarazi gabe,  
zorionak Jainkoarenganik urundu gabe.

Egiazko adiskideak izan ditzazuela ondoan,  
 bai zorionean, bai atsegabeen zuen lagun.  
 Ezinbertzean denak aurki dezala zuen baitan esku eta laguntza.  
 Zuen familia izan dadila besteentzat etsenplu  
 eta jakin dezala beti besteen deiari ihardesten.  
 Jauna bekizue begirale eta gidari zuen bizitze guzian.  
 I... eta I..., eta hemen zirezten guziak  
 benedika zaitzatela Jainko ahalguzidunak,  
 Aitak eta Semeak eta Izpiritu Sainduak.

Amen

5 Jauna, gure Jainkoa,  
 begi onez beha, otoi, ezkonberri hauieri,  
 eta zure benedizioneak ixur hauien gainera.  
 Bat izan ditezela maitasun berean,  
 eta biak elkarrekin ibil saildutasunerako bidean.  
 [ Zurekin eta zure idurira, maitasunez bizia sor dezatela,  
 eta elkarrekin ongi haz ditzatela beren haurrak. ]  
 Zuzentasunean eta karitatean bizi ditezela,  
 zure bila dabilzaneri zure argia erakusteko.  
 Hauien etxea izan dadila guzien etxea  
 eta lagun hurkoaren deiari ihardets diezotela.  
 Azkartuak izan ditezela beren biziko sakrifizio eta atseginez,  
 bai eta ebanjelioaren lekuko izan.  
 Luzaz bizi ditezela zoritxarrik eta gaitzik gabe,  
 eta bien lana benedikatua izan dadila.  
 [ Ikus ditzatela beren haurrak bakean handitzen,  
 eta ukan familia uros baten laguntza.]  
 Eta beren aitzineko guziekin batean hel ditezela  
 maitasunak azkenik ez duen zure etxerat.  
 I eta I , eta hemen zirezten guziak  
 benedika zaitzatela Jainko ahalguzidunak,  
 Aitak eta Semeak eta Izpiritu Sainduak.

Amen

- 6 Jainko Jaunak, zuen Aitak, begira zaitzatela biak bat,  
eta zuen amodioa berak handiaraz dezala.  
[ Haurrak izan ditezela zuen etxearen bozkarioa eta ]  
gora behera guzietan egiazko lagunak ondoan izan ditzazuela.  
Zuen bien lana benedikatua izan dadila,  
eta bakea dagola zuen etxean.  
I... eta I..., eta hemen zirezten guziak  
benedika zaitzatela Jainko ahalguzidunak,  
Aitak eta Semeak eta Izpiritu Sainduak.  
Amen

***EZKONBERRIERI ESKAINIA DEN EZKONTZAREN OROITZAPENA***

Ikus 87-88 orrialdeak

**EZKONT-AGERIAREN SINATZEA**

Meza bururatu-eta, lekukoek, apezak eta ezkonberriek ezkont-ageria sinatzen dute.

Sinatzea denen aitzinean egin bedi, ahal bezenbatean hortarako prestatua den mahain ttipi batean, eta ez aldarean.



## **EZKONTZAKO**

### **SAKRAMENDUA**

### **MEZARIK GABE**

Hastea

Hitzaren liturgia

Ezkontzako sakramendua

Ospakizunaren bururatzea

## SARTZEA

### ONGI ETORRIA

Ezkongaieri ongi etorria bi moldetan egin daiteke:

- A- Elizako ateetan hitz batzu erranez, eta gero, apezaren ondotik proosonean sartzen dira ezkongaiak eta heien lekukoak. Kantu bat eman daiteke hor edo organoa bakarrik.
- B- Apezak ezkongaiak igurikatzen ditu beren jarleku aitzinean. Heiekin hitz batzu eginik aldareari musu eman-eta, badoa bere lekurat.

*Agurra*

Aitaren eta Semearen.....

Jesu Kristo gure Jaunaren grazia, eta Jainko Aitaren maitasuna eta Izpiritu Sainduaren batasuna izan bedi zuekin.

Eta zure Izpirituarekin

*Edo*

Jaungoiko gure Aitaren eta Jesu Kristo gure Jaunaren grazia eta bakea zuekin.

Benedikatua Jaungoikoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

*Edo*

Jauna zuekin

Eta zure Izpirituarekin

*Edo*

Ezkonduen batasuna Kristoren eta Elizaren batasunaren seinale egin duen Jainko gure Aitak eman diezazuela grazia eta bakea.

Benedikatua Jaungoikoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

Gero apezak hitz batzu erraiten ditu denen laguntzeko elizkizunean parte hartzen. Hemen diren bietarik bat, edo beste bat berak prestatua :

Haurride maiteak, pozik etorri gira Jainkoaren etxerat, ospakizun huntan parte hartzera:

I... eta I... laguntzen ditugu beren etxea eraiki nahi duten egunean: badakigu garrantzia handikoa dela memento hau esposgai hauentzat.

Lagunt ditzagun gure amodioaz eta otoitz kartsuaz.

Hauekin batean artoski entzun dezagun

Jainkoak gaur erraiten daukuna.

Eliza sainduarekin batean, Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,

otoitz egin diezogun Jainko gure Aitari :

ongi etorri goxoa egin diezoten ezkongaieri,

benedika ditzan eta betikotz bat egin.

*Edo*

I... eta I..., Elizak zuen bozkarioan parte hartzen du,  
 eta ongi etorri egiten zueri, zuen familiako eta laguneri,  
 Jainko Aitaren aitzinean  
 zuen bien bizi guziko batasuna finkatu nahi duzuen egunean.  
 Jaunak entzun ditzala zuen otoitzak besta haundi huntan.  
 Zerutik igor diezazuela bere Izpiritua ,  
 bere indarraz bete eta geriza zaitzaten.  
 Eman diezazuela zuen bihotzak igurikatzen eta eskatzen duena.

**OTOITZA**

Hemen direnetarik bat hauta.

- 1 Jainko Jauna, zuk, ezkontzako lokarria sakramendu eder batez sagaratu duzu, Jesu Kristoren eta Elizaren misterioa adiaraz dezan. Egizu bada, zure bi zerbitzari hauek fedez sinesten dutena egitez bete dezaten. Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, Zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean, Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldi guzietan.
- 2 Jainko Jauna, zuk, gizakia eginez, gizonaren eta emaztearen batasuna nahi izan duzu. Ezkontzako hitzez bat eginen diren I... eta I... jos ditzazu amodio bakarraren lokarriaz : egizu, maitasunezko fruitu ederrak eman ez zure maitasunaren lekuko izan ditezen. Zure Seme...
- 3 Entzun, Jauna , gure otoitzak : guziz ona baitzira, ixur zure grazia I... eta I...-ren gainera , zure aldarearen aitzinean batetaratzen direnak elkar-maitasunean finka ditezen. Zure Seme...
- 4 Jainko ahalguziduna, ezkontzako sakramenduaz bat eginen diren I... eta I...-rentzat otoizten zaitugu : finka ditezela aitortzen duten fedean, eta hauen haurrak fededun izan ditezela Elizaren pozgarri. Zure Seme...

- 5** Entzun, Jauna, gure otoitzak,  
eta arta handiz begira zazu  
gizadiaren garapenerako ezarri duzun ezkontza;  
zure graziak zaint dezala bere hastapena zureganik duena.  
Zure Seme...
- 6** Jainko gure Jauna,  
munduaren haste hastetik gizadia benedikatu duzu  
emankor izaiteko grazia emanik.  
Entzun, otoi, gure eskariak,  
eta ixur I... eta I... zure zerbitzarien gainera  
zure benedizione nasaia :  
Emozute batasunean bizitzea, gogoz eta bihotzez bat,  
saindutzeko gutizia berarekin .  
Zure Seme...
- 7** Jainko gure Aita, erakutsi daukuzu zenbat maite gaituzun  
bere bizia guretzat eman duen zure Semea gutarterat igorritz.  
Egun, I... eta I...-rentzat otoizten zaitugu :  
Jesu Kristo gure Jauna heiekin izan dadin orai,  
eta bat besteari betikotz emaiten lagunt ditzan.  
Zurekin eta ...
- 8** I... eta I... zure aitzinera etorri diren une huntan,  
otoizten zaitugu, Jauna :  
Bihotzak bat bestearen amodioaz jadanik beteak dauzkate,  
bainan amodio hori zure eskuetan ezarri nahi dute,  
eta konsekra dezazun eskatzen dautzute.  
Izan zaite zure aitzinean elkarri emanen duten hitzaren iturri ,  
beren biziak diraueno begiratu beharko baitute.  
Emozute leial izaitea, zu leial ziren bezala :  
hauen batasuna betikotz indarrez bete izan dadila.  
Emozute elkar maitatzea, zuk maite dituzun bezala :  
horien amodioa beti berri izan dadila.  
Zure Seme...

- 9 Jainko Jauna, I... eta I...-rekin bildu gaituzu :  
 eliza huntarat etorri dira beren amodioa zuri gomendatzera,  
 bai eta galdatzera benedika dezazun.  
 Zuhaur, izan zaite hauen besta huntan :  
 lagunt gaitzazu otoitzean ekartzen  
 hauen aldera dugun amodioa ;  
 argi gaitzazu, zure Hitzaren baitan konpreni dezagun  
 ezkontza zein handi eta saindu den.  
 Egizu esker onean handi dadin hemen izaiteko dugun bozkarioa.  
 Zure Seme.....

## HITZAREN LITURGIA

Hitzaren Liturgia beti bezala egiten da : bi edo hiru irakurgai har daitezke. Hiru egiten badira, lehena Testamendu Zaharretik hartu behar da, edo , Bazko denboran Apokalipza liburutik. Azkena aldiz, beti Ebanjeliotik hartu behar da. Irakurgai batek bederen beti ezkontza aipatu behar du.

Irakurgaiak 53-76 orrialdeetan dira.

### Homilia

#### Fedearen aitormena

Egin daiteke, konbeni balinbada. Hiru molde badira : edo Bazko gauean bezala galdeak eginez, edo igandetan bezala "Sinesten dut"-a erranez. Ikus 77, 78, 79 orrialdeak.

## SAKRAMENDUA

Ezkontza bat baino gehiago egiten badira batean, apezaren galdeak, baiaren emaita, hitzen finkatzea eta eraztunen benedikatzea, kuple bakotxarentzat berex egiten dira. Gainerako otoitzak, aldiz, mezan gaindi, pluralean egiten dira.

### ***EZKONGAIEKIN ELKARRIZKETA***

Denak xutik, lekukoak ezkongaien bi aldeetan. Apeza ezkongaiari mintzo da, hitz hauek edo beste batzu erranez :

Adixkide maiteak ( edo I.. eta I...) eliza huntarat etorri zirezte,  
Jaunak berak finka dezan zuen ezkontzako xedea.  
Elizaren zerbitzari apezaren eta elkarte guziaren aitzinean.  
Kristo Jaunak zuen ezkont-amodioa nasaiki benedikatzen du :  
ezkonduen laguntzeko elkarri beti leial egoiten,  
eta elkarrekin ezkontzaren eginbideen betetzeko,  
sakramendu berezi baten bidez aberasten eta indarrez betetzen ditu  
bataioaz jadanik kontsekratu dituenak.  
Horra zergatik orai galdatzen dautzuetan  
zuen xedea ager dezazuen Elizaren aitzinean.

Orduan galdeak egiten diozkate ezkongaiari beren hautuaren libertateaz, leial egoiteaz, haurren onartzeaz eta altxatzeaz. Bakotxak berex ihardesten du . Bi molde badira horren egiteko :

### *Lehen Moldea*

I... eta I... Jainkoaren Hitza entzun duzue :  
adiarazi dauku zer gauza handia den giza-amodioa eta ezkontza.  
Elkarri zuen hitza emanen duzue ezkontzan :  
zuen gogoz eta nahiz nehork hertsatu gabe ote da ?  
Bakotxak berex ihardesten du : **Bai**  
Ezkontzaren bidea hartuz, hitz emanen duzue  
elkarri leial, eta elkar lagunduz egonen zireztela zuen bitzitze guzian?  
Bakotxak berex ihardesten du : **Bai ( bizi guziko )**  
Prest ote zirezte Jainkoak emanen daukitzuen haurren onartzera,  
eta Kristoren Ebanjelioaren arabera  
eta Elizaren fedean heien altxatzera?  
Bakotxak berex ihardesten du : **Bai**

Beste galde hau ere egin daiteke:

Prest zirezte zuen giristino eginbidea elkarrekin betetzera  
munduan eta Elizaren baitan?

Biek batean : **Bai**

**Bigarren  
moldea**

Apeza batzarrari mintzo da :

Entzule maiteak, I... eta I...-rekin entzun dugu Jainkoaren hitza :

Adiarazi dauku zein haundia den giza-amodioa eta ezkontza.

Ezkontzak gauza hauek eskatzen ditu :

Ezkon-lagunek librokari eta nehork bortxatu gabe elkarri hitza eman dezaten,

elkarri amodio eta errespetu ekarriko diotela hitzeman dezaten,

( Jainkoak emanen diozkaten haurrak onar ditzaten,

eta Kristoren Ebanjelioaren arabera Elizaren fedean altxa) .

Gero ezkongaiari galdetzen diote :

I... eta I..., nahi duzue hola bizi elkarrekin ?

Bakotzak berex ihardesten du : **Bai**

Beste galde hau ere egin daiteke :

Prest zirezte zuen giristino eginbidea elkarrekin betetzera

munduan eta Elizaren baitan ?

Biek batean : **Bai**

**DEIA ELKARRI BAIA EMAN AITZIN**

Apezak ezkongaiak deitzen ditu elkarri eskua emaitera baia eman aitzin : formula hautarik bat hauta.

- 1 Orain, bada, ezkontzaz bat egin nahi duzuenaz geroz,  
eman elkarri eskuak eta zuen baia Jainkoaren eta Elizaren aitzinean.
- 2 Hemen diren guzien, Jainkoaren eta Elizaren aitzinean  
eman elkarri eskuak eta erran zuen baia.
- 3 Jainkoa da zuen amodioaren iturria,  
eta beti zuekin izanen duzue :  
haren eta hemen diren guzien aitzinean  
eman elkarri eskuak eta zuen baia.
- 4 Kristorekin bat izan zaitezten,  
eta zuen amodioa, hari esker,  
guzientzat Jainkoaren maitasunaren ezaugarri izan dadin,  
hemen bildua den Elizaren aitzinean  
eman elkarri eskuak eta zuen baia.

**EZKONGAIEK ELKARRI BAIAREN EMAITEA**

Ezkongaiak elkarri esku eskuina emaiten diote, eta baia erraiten, hemen diren hiru formulatarik bat hartuz, deusik aldatu gabe :

**1**

Senargaiak :

Nik, I...k , hartzen zaitut zu, I... , emaztetzat eta zuri leial egonen naizela hitzemaiten, zorionean eta zoritxarrean, osasunean eta erialdian, Zure maitatzeko nere biziko egun guzietan

Andregaiak :

Nik, I...k, hartzen zaitut zu, I..., senartzat eta zuri leial egonen naizela hitzemaiten, zorionean eta zoritxarrean, osasunean eta erialdian, zure maitatzeko nere biziko egun guzietan.

**2**

Senargaiak :

I... nahi duzu izan nere emazte ?

Andregaiak :

Bai ( nahi dut )

Eta zuk, I... , nahi duzu izan nere senar ?

Senargaiak :

Bai ( nahi dut ).

Nik, I...k, hartzen zaitut zu, I..., emaztetzat, eta izanen naiz zure senar.

Hitzemaiten dautzut leialki maitatuko zaitudala zorionean eta ezinbertzean nere bizi guzian.

Andregaiak :

Nik, I...k, hartzen zaitut zu, I..., senartzat, eta izanen naiz zure emazte.

Hitzemaiten dautzut leialki maitatuko zaitudala zorionean eta ezinbertzean nere bizi guzian.

**3**

Senargaiak :

I..., nahi duzu izan nere emazte ?

Andregaiak :

Bai, nahi dute izan zure emazte.

Eta zuk, I... nahi duzu izan nere senar ?



Senargaiak :

Bai, nahi dut izan zure senar.

Andregaiak :

Hartzen zaitut senartzat eta zurea izan nahi dut.

Senargaiak:

Hartzen zaitut emaztetzat, eta zurea izan nahi dut.

Biek batean :

Elgar leialki maita dezagun  
atseginean eta atsegabeen,  
elkar laguntzeko gure bizi guzian.

#### 4

Hiru molde horiek ezin erranak balinbadira ezkongai zenbaitentzat, edo beste arrazoin pastoral baten gatik, apezak beren baia eska diezaieke galde hauk eginez :

Lehenik senargaiari :

I..., nahi duzu I... hartu emaztetzat,  
eta hitzemaiten duzu hari leial egonen zirela  
Zorionean eta zoritxarrean, osasunean eta erialdian,  
haren maitatzeko eta errespetatzeko zure biziko egun guzietan ?

Senargaiak ihardesten du :

**Bai**

Gero andregaiari :

I..., nahi duzu I... hartu senartzat,  
eta hitzemaiten duzu hari leial egonen zirela  
zorionean eta zoritxarrean, osasunean eta erialdian,  
haren maitatzeko eta errespetatzeko zure biziko egun guzietan ?

Andregaiak ihardesten du :

**Bai**

#### ***HITZEN FINKATZEA***

Gero apezak ondoko hitzak erraitean jestu berezi bat egin dezake hautura :

- a. Esku eskuina heda ezkondueri buruz
- b. Esku eskuina pausa ezkonduen esku juntatuena gainean

Erraiten diote :

Elizaren aitzinean eman duzuen hitza  
Jaunak finka dezala  
eta bere benedizioez bete zaitzatela.  
Jainkoak bateratu duena, gizakiak ez beza berex.

**Edo**

Elizaren aitzinean elkarri eman duzuen hitza  
gure lehen burasoak parabisuan bat egin zituen Jainkoak  
Abrahamen, Izaaken eta Jakoben Jainkoak  
finka eta benedika dezala Kristoren baitan.  
Jainkoak bateratu duena, gizakiak ez beza berex.

**ERAZTUNEN BENEDIKATZEA ETA EMAITEA**

Apezak eraztunak benedikatzeko ditu, hemen diren lau otoitzetarik bat hartuz:

- 1 Jaunak benedika ditzala + eraztun hauk  
elkarri emanen dituzuenak amodio eta leialtasun seinale bezala.

Amen

2

Jauna, benedika-zkitzu  
zure izenean benedikatzeko + ditugun eraztun hauk.  
Emozute I... eta I...-ri elkarri osoki leial egoitea,  
zure nahia eginez bakean irautea,  
eta beti elkarren amodioan bizitzea.

Amen

3

Jauna, benedika + eta saildu-zkitzu  
I... eta I... zure zerbitzariak beren amodioan.  
Eraztun hauk izan ditezela hauientzat  
leialtasun seinale eta elkarren amodioaren oroigarri.

Amen

4

Jainko gure Jauna,  
gurekin batasun egin duzu Jesu Kristoren bitartez :  
benedika-zkitzu + orai eraztun hauek;  
I... eta I...-rentzat izan ditezela  
beren leialtasunaren seinale, eta amodioaren oroigarri.

Amen

Nahi bada, ur benedikatuarekin ihintza daitezke, eta gero ezkonberrieri emaiten dira.  
Gizonak emaztearen erhian ezartzen du, erranez ( nahi bada )

I... har-azu eraztun hau  
nere amodioaren eta leialtasunaren seinale.  
( Aitaren eta semearen eta Izpiritu Sainduaren izenean.)

Gero emazteak berdin:

I... har-azu eraztun hau  
nere amodioaren eta leialtasunaren seinale.  
( Aitaren eta Semearen eta Izpiritu Sainduaren izenean.)

## **EZKONBERRIEN BENEDIKATZEA**

Apezak edo diakreak, ezkonberrieri buruz dagola, heien gainera deitzen du Jainkoaren benedizioa. Eta hori beti egitekoa da.

Ezkonberriak aldarearen aitzinera heldu dira, eta xutik egoiten. Edo beren lekuan belauniko egoiten.

Hemen den otoitza hartzen da, edo 80-84 orrialdeetan direnetarik bat. [ ] kakoen artean diren hitzak ez dira erraiten, hala beharrean.

### ***BIGARREN MOLDEA***

Otoitzerako deia, hitz hauekin, edo beste batzuekin.

Guziek batean otoitz egin dezagun, Jaunari eskatuz  
bere benedizioa ezkonberri hauen gainera ixur dezan,  
bere bihotz onean bere grazia eman diezoten  
ezkontzako sakramenduaren bidez bat egin dituenari.

Ixtant bat otoitz egin ixilik. Gero, apezak edo diakreak eskuak ezkonberrien gainera hedatuz, dio:

Jainko ahalguziduna, zuk dituzu diren guziak  
zure indarrez ezdeusetarik egin  
eta hastapenetik mundua haxean ezarri duzu;  
gizona eta emaztea zure iduriko eginez,  
gizonari ezin berexizko laguntzat emaztea moldatu diozu,  
gehiago ez ditezen biga izan, bat baizik,  
hola erakusteko zuk bat egin duzuna  
ez dela behinere zilegi berextea.

Jainkoa, zuk duzu hain misterio handiz  
ezkont-lokarria saildutu,  
hartan adiaraziz Kristoren eta Elizaren arteko batasuna.

Jainkoa, zuk dituzu gizona eta emaztea bat egin,  
zuk hastapenetik sortu batasun horri,  
Zuhaurek diozu emaiten zure benedizioa,  
ez bekatu orisinalaren zigorrak,  
ez uholde handiaren hondamendiak kendu ez dion benedizioa.

Beha zozute begi onez zure zerbitzari hauieri :  
 ezkontzako lokarriak bat egin ditu,  
 eta zure benedizionearen laguntza eskatzen dautzute.  
 Igor-azu haien gainera Izpiritu Sainduaren grazia :  
 haien bihotzetara ixuri duzun maitasunari esker  
 ezkont-batasunari leial egon ditezela.

Zure alaba hau izan bedi maitasun eta bakezko graziaz betea;  
 har ditzala Liburu Sainduetan goraiatuak diren emazteen bideak.  
 Hunen baitan fida bedi senarraren bihotza :  
 ezagutuz bere beteko laguna duela,  
 eta graziazko bizitzean kidekoa,  
 errespetatzea eta maitatzea,  
 Kristok bere Eliza maitatu duen bezala.

Eta orai, Jauna, eskatzen dautzugu :  
 emozute sinestean sendo irautea,  
 eta zure manamenduen maitatzea;  
 elkarri leial egon ditezela,  
 eta beren bizitze zuzenaren gatik ezagutuak izan.  
 Ebanjelioaren indarrak bete ditzala,  
 Jesu Kristoren lekuko zintzo izan ditezten guzien aitzinean.  
 [ Seme-alabak ukan ditzatela,  
 buraso on eta zintzo izanez,  
 eta ikus ditzatela biek beren haurren haurrak. ]  
 Eta gero, nahi bezalako xahartzea ukanik,  
 sailduen bizirat eta betiereko zerurat hel ditezela.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Amen

### ***GORESMEN KANTUA***

Esker onezko kantu bat eman daiteke, edo organoa jotzen da.

### ***EZKONBERRIEN OTOITZA***

Ezkonberriek nahi badute otoitz bat erran dezakete, beren hautuzkoa, edo hemen direnetarik bat .

Jainko Jauna, batasun guzien Aita, otoitz egiten dautzugu:  
 –eskerrak emaiten dauzkitzugu, zuk eman baitaukuzu elkar kausitzea  
 eta zure so amultsuaren gerizan gure amodio bidearen egitea.

– eskerrak gure buraso, familia, lekuko,  
adiskideengatik,  
bai eta gure bidean biziaren seinale  
eta maitasunaren lekuko izan diren guziengatik.

Jesus Jauna, otoitz egiten dautzugu :

– egun, zure bidez eskaintzen dugu emana izan eta izanen zaikuna :  
gure biziak, gure familia berria, ( eta igurikatzen ditugun haurrak ) :  
– badakizu gure muga eta ahulezien berri :  
zure grazia eta barkamendua ardiets ditzagula.

Aitaren eta Semearen Izpiritua, Maitasunaren Izpiritua,  
otoitz egiten dautzugu:

– egizu erne ibil gaiten zuk munduan egiten duzunaren ikusteko,  
eta emaguzu elkarren sustengu izaita.  
– berri zazu gure baitan Jesus Jaunari leial izaiteko  
eta haren ondotik ibiltzeko xedea.

Jainkoaren eta gure Ama den Birjina Mariak,  
emazte guzien artean benedikatua denak  
guretzat otoitz egin diezola bere Seme maiteari  
gaur eskatzen duguna ardiets dezagun.

Amen

**2** Gure Jainko Jauna, zorion egun huntaraino ekarri gaituzu,  
eta gure esker ona erran nahi dautzugu.

Bat bestearen gomendio eman gaituzu :  
orai, elkarrekin gure amodioa gomendatzen dautzugu.

Jauna, hau dautzugu eskatzen: bat atxik gaitzazu, zure bakean.

Zaint zazu gure ezkontza.

( Emaguzu haurren onartzeko bozkarioa )

Idek-atzu gure bihotzak besteeri.

Emaguzu leial egoitea gure biziak diraueno.

Eta egun batez har gaitzazu zure maitasunaren Erreinuan,

han gorets zaitzagun zorionean eta bakean.

Amen

**3** Jainko Jauna, zure maitasuna leiala da :  
sinesten dugu deitzen gaituzula  
elkarrekin zure maitasunaren seinale izaitera.

Jainko Jauna, zure herriarekin egin duzun batasuna  
itzalik gabekoa da :  
sinesten dugu deitzen gaituzula  
giza amodioa zein handia den aitortzera.

Jainko Jauna, zure presentzia gure ondoan gauza segura da :  
sinesten dugu deitzen gaituzula  
zureganako bidean elkarren laguntzera.

Jainko Jauna, guretzat duzun maitasun samurrak mugarik ez du:  
sinesten dugu deitzen gaituzula  
gure bizia maitasun eskaintza egitera.

### ***FEDEDUNEN OTOITZA***

Apezaren deia:

Besta huntako bozkarioan gaudela,  
otoitz egin diezogun konfiantzarekin Jaunari  
ezkonberrientzat, hemen bilduak girenentzat  
Elizarentzat eta munduarentzat.

***Edo***

Haurride maiteak,  
bere graziaren eta maitasunaren dohain bati esker,  
Jainkoak nahi izan du bere betera ekarri eta kontsekratu  
I... eta I -ren amodioa.  
Amodio hori ezar dezagun haren amodio samurraren baitan.

***Edo***

Haurride maiteak,  
gure otoitzez lagunt dezagun familia berri hau :  
Jainko guziz onak handiaraz dezala hauen amodioa,  
eta munduko familia guzieren eman bere laguntza.

Huna otoitz xede batzu; beste batzu kausituko dituzu 85-86 orrialdeetan. Edo ere zuhauk molda.  
Ihardespena : har usaiakoetarik bat.

- 1 Ezkonberrientzat eta haien familiaren zorionarentzat, egin dez.ot..  
 2 Haien etxeko eta lagunentzat, eta lagundu dituzten guzientzat, e.d.o.  
 3 Ezkontzari buruz prestatzen ari direnentzat,  
 eta Jaunak beste bokazione batera deitzen dituen guzientzat, e.d.o.  
 4 Munduko familia guzientzat,  
 eta nazioeen arteko bakea finka dadin, egin dezagun otoitz  
 5 Gure familietarik joanak ditugunentzat, eta hil guzientzat e.d.o.  
 6 Jainkoaren herri saildua den Elizarentzat,  
 eta giristino guzien arteko batasunarentzat, egin dezagun otoitz.

### ***GURE AITA***

Fededunen otoitzeko xedeen ondotik, apezak edo diakreak segidan *Gure Aitaren* otoitzerako deia egiten du, hemen diren hitzekin, edo beste batzuekin.

Jainkoaren Izpirituak biltzen gaituelarik,  
 egin diezogun gure otoitza Batasunaren Jainkoari,  
 Jesu Kristoren Aitari, gure Aita denari:

Gure Aita.....

Mezarik ez balinbada, , normalki ez da kominionerik. Bainan, kasu berezi batean ( hala nola apezik ez zelakotz hor izaiten ahal mezaren emaitako ), diakreak emanen du kominioea, ohiko otoitzak erranez.

### ***OSPAKIZUNAREN BURURATZEA***

#### **AZKEN BENEDIZIOEA**

Meza bururatzean, apezak ezkonberriak eta jendea benedikatzten ditu, hemen emanak diren sei otoitzetarik bat hartuz.

- 1 Jainko Aita betierekoak begira zaitzatela  
 biak bat amodio berean,  
 Kristoren bakea zuen baitan izan dadin,  
 bai eta zuen etxean ere beti.

Amen.

Izan ezazue [benedizioe seme-alabetan, ]  
 atsegin eta laguntza adiskideenganik,  
 eta egiazko bakea denekin.

Amen

Izan zaitezte Jainko-maitasunaren lekuko munduan,  
zuen bihotz ona jastatuko duten pobre eta nahigabetuek  
esker onez ongi etorri egin diezazuen  
egun batez, Jainkoaren betiko etxean.

Amen

Eta hemen zirezten guziak ere  
benedika zaitzatela Jainko ahalguzidunak,  
Aitak eta Semeak eta Izpiritu Sainduak.

Amen

- 2 Jainko Aita ahalguzidunak  
eman diezazuela bere bozkarioa,  
eta benedika zaitzatela ( zuen haurretan ).

Amen

Jainko Seme bakarrak begira eta zaint zaitzatela  
zorionean eta zoritxarrear

Amen

Jainko Izpiritu Sainduak ixur dezala beti  
bere benedikapena zuen bihotzetara.

Amen

Eta zuek, hemen zirezten guziak ere,  
benedika zaitzatela Jainko ahalguzidunak,  
Aitak eta Semeak eta Izpiritu Sainduak.

Amen

- 3 Kanako ezteietarat joan zen Jesus Jaunak  
benedika zaitzatela zuek, eta zuen ahaide-adiskideak.

Amen

Eliza azkeneraino maitatu zuenak,  
berak ixur dezala beti bere maitasuna zuen bihotzetara.

Amen

Jaunak eman diezazuela  
haren piztearen lekuko izaitea,  
eta hitzemana daukun zoriona pozik igurikatzea.

Amen

Eta zuek, hemen zirezten guziak ere  
benedika zaitzatela Jainko ahalguzidunak,  
Aitak eta Semeak eta Izpiritu Sainduak.

Amen



4 Jainko Jaunak begira zaitzatela biak bat amodio berean,  
 eta handiaraz dezala ere harenganik daukazuen amodio hori.  
 [ Zuen haurrak izan ditezela zuen etxearen benedizione,  
 eta neurririk gabe ordain diezazuela  
 zuenganik ukanen duten bozkarioa.]  
 Kristo Jaunaren bakea dagola beti zuen etxean,  
 eta zuen bien artean.  
 Benedikatua izan bedi zuen bien lana,  
 bizi huntako griñek etsiarazi gabe,  
 zorionak Jainkoarenganik urundu gabe.  
 Egiazko adiskideak izan ditzazuela ondoan,  
 bai zorionean, bai atsegabeen, zuen lagun.  
 Ezinbertzean denak aurki dezala zuen baitan esku eta laguntza.  
 Zuen familia izan dadila besteentzat etsenplu  
 eta jakin dezala beti besteen deiari ihardesten.  
 Jauna bekizue begirale eta gidari zuen bizitze guzian.  
 I... eta I..., eta hemen zirezten guziak  
 benedika zaitzatela Jainko ahalguzidunak,  
 Aitak eta Semeak eta Izpiritu Sainduak.  
 Amen

5 Jauna, gure Jainkoa,  
 begi onez beha, otoi, ezkonberri hauieri,  
 eta zure benedizioneak ixur hauien gainera.  
 Bat izan ditezela maitasun berean,  
 eta biak elkarrekin ibil saindutasunerako bidean.  
 [ Zurekin eta zure idurira, maitasunez bizia sor dezatela,  
 eta elkarrekin ongi haz ditzatela beren haurrak. ]  
 Zuzentasunean eta karitatean bizi ditezela,  
 zure bila dabilzaneri zure argiaz argi egiteko.  
 Hauien etxea izan dadila guzien etxea  
 eta lagun hurkoaren deiari ihardets diezotela.  
 Azkartuak izan ditezela beren biziko sakrifizio eta atseginez,  
 bai eta ebanjelioaren lekuko izan.  
 Luzaz bizi ditezela zoritxarrik eta gaitzik gabe,  
 eta bien lana benedikatua izan dadila.  
 [ Ikus ditzatela beren haurrak bakean handitzen,  
 eta ukan familia uros baten laguntza.]

Eta beren aitzineko guziekin batean hel ditezela  
maitasunak azkenik ez duen zure etxerat.

I... eta I..., eta hemen zirezten guziak  
benedika zaitzatela Jainko ahalguzidunak,  
Aitak eta Semeak eta Izpiritu Sainduak.

Amen

- 6 Jainko Jaunak, zuen Aitak, begira zaitzatela biak bat,  
eta zuen amodioa berak handiaraz dezala.  
[ Haurrak izan ditezela zuen etxearen bozkarioa eta ]  
gorabehera guzietan egiazko lagunak ondoan izan ditzazuela.  
Zuen bien lana benedikatua izan dadila,  
eta bakea dagola zuen etxean.  
I... eta I..., eta hemen zirezten guziak  
benedika zaitzatela Jainko ahalguzidunak,  
Aitak eta Semeak eta Izpiritu Sainduak.

Amen

### ***EZKONBERRIERI ESKAINIA DEN EZKONTZAREN OROITZAPENA***

Ikus 87. orrialdea

#### **EZKONT-AGERIAREN SINATZEA**

Meza bururatu-eta, lekukoek, apezak eta ezkonberriek ezkont-ageria sinatzen  
dute.

Sinatzea denen aitzinean egin bedi, ahal bezenbatean hortarako prestatua den  
mahain ttipi batean, eta ez aldarean.

## **KATOLIKO BATEN**

**ETA**

## **KATEKUMENO BATEN**

**EDO**

## **GIRISTINO EZ DEN BATEN**

**EZKONTZA**

Sartzea

Hitzaren liturgia

Ezkontza

Ospakizunaren bururatzea

Holakoetan, ospakizuna egiten da edo elizan, edo beste leku egoki batean, hemen emana den errituari jarraikiz.

Hemen emana den erritua hartu behar du apezak, edo diakreak apezpikuaren edo erretoraren baimena ukanik ezkontza hortan izaiteko eta Elizaren izenean benedikatzeko.

## **SARTZEA**

Apeza, edo diakrea, alba eta estola xuria jantzirik, elizaren atean, edo hautatua izan den lekuan dago, eta ezkongaiari ongi etorria egiten diote.

Gero denak badoatzi beren jarlekuetararat.

Ospakizuna hasten du apezak ( edo diakreak ) hitz batzu erranez denen laguntzeko behar bezala parte hartzen, hemen diren bezala, edo berak asmatu.

I... eta I..., Elizak zuen bozkarioan parte hartzen du,  
eta ongi etorri egiten zueri, zuen familiako eta laguneri,  
zuen bizi guziko batasuna zuen artean finkatu nahi duzuen egunean.  
Giristinoentzat, Jainkoa da maitasunaren eta leialtasunaren iturria,  
Jainkoa maitasuna baita.

Beraz, artoski entzun dezagun haren Hitza  
eta eska diezogun, berak eman diezazuen  
zuen bihotzak igurikatzen eta eskatzen duena.

## **HITZAREN LITURGIA**

Hitzaren Liturgia beti bezala egiten da : bat edo bi irakurgai har daitezke. Hala beharrea bat bakarrik egin daiteke. Bat bederen hautatu behar da argi eta garbi ezkontzaz mintzo dena. Homilia beti egin behar da, hautatu diren irakurgaietarik abiatuz.

Irakurgaiak 53-76. orrialdeetan dira.

## **EZKONTZAREN OSPATZEA**

### ***EZKONGAIEKIN ELKARRIZKETA***

Denak xutik, lekukoak ezkongaien bi aldeetan. Apeza ezkongaiari mintzo da, hitz hauek edo beste batzu erranez :

Adiskide maiteak ( edo I.. eta I...) eliza huntarat etorri zirezte,  
Jaunak berak ezkontzeko duzuen xedea finka dezan  
Elizaren zerbitzariaren eta elkarte guziaren aitzinean.  
Horrela zuen amodioa nasaiki benedikatzten du :  
eta lagunduko zaituzte elkarri beti leial egoiten,  
eta elkarrekin ezkontzaren eginbideen betetzen.  
Horra zergatik orai galdatzen dautzuetan  
zuen xedea ager dezazuen Elizaren aitzinean.

*Lehen  
moldea*

I... eta I... Jainkoaren Hitza entzun duzue :  
adiarazi dauku zer gauza handia den giza-amodioa eta ezkontza.  
Elkarri zuen hitza emanen duzue ezkontzan :  
zuen gogoz eta nahiz nehork hertsatu gabe ote da ?

Bakotxak berex ihardesten du : **Bai**

Ezkontzaren bidea hartuz, hitzemanen duzue elkarri leial,  
eta elkar lagunduz egonen zireztela zuen bitzitze guzian?

Bakotxak berex ihardesten du : **Bai ( bizi guziko )**

Prest ote zirezte Jainkoak emanen dauzkitzuen haurren onartzera ?

Bakotxak berex ihardesten du : **Bai**

*Bigarren  
moldea*

Apeza batzarrari mintzo da

Entzule maiteak, I... eta I...-rekin entzun dugu Jainkoaren hitza :  
adiarazi dauku zein handia den giza-amodioa eta ezkontza.

Ezkontzak gauza hauek eskatzen ditu :

Ezkon-lagunek librokiki eta nehork bortxatu gabe

elkarri hitza eman dezaten,

elkarri amodio eta errespetu ekarriko diotela hitzeman dezaten,

eta senar-emazteen ( eta burasoen) eginbideak bete.

Gero ezkongaiari galdatzen diote :

I... eta I..., nahi duzue hola bizi elkarrekin ?

Bakotxak berex ihardesten du : **Bai**

**DEIA ELKARRI BAI A EMAN AITZIN**

Apezak ezkongaiak deitzen ditu elkarri eskua emaitera baia eman aitzin : formula hautarik bat hauta.

- 1 Orai, bada, ezkontzaz bat egin nahi duzuenaz geroz,  
eman elkarri eskuak  
eta erran zuen baia Jainkoaren eta Elizaren aitzinean.
- 2 Hemen diren, eta zuen bozkarioan parte duten guzien aitzinean  
eman elkarri eskuak eta erran zuen baia.
- 3 Jainkoa da zuen amodioaren iturria, eta beti zuekin izanen duzue :  
haren eta hemen diren guzien aitzinean  
eman elkarri eskuak eta zuen baia.

- 4 Kristorekin bat izan zaitezten,  
eta zuen amodioa, hari esker,  
guzientzat Jainkoaren maitasunaren ezaugarri izan dadin,  
hemen bildua den Elizaren aitzinean  
eman elkarri eskuak eta erran zuen baia.

***EZKONGAIEK ELKARRI BAIAREN EMAITEA***

Ezkongaiak elkarri esku eskuina emaiten diote, eta baia erraiten, hemen diren hiru formuletarik bat hartuz, deusik aldatu gabe :

1

Senargaiak :

Nik, I...k , hartzen zaitut zu, I... , emaztetzat  
eta zuri leial egonen naizela hitzemaiten,  
zorionean eta zoritxarrean, osasunean eta erialdian,  
Zure maitatzeko nere biziko egun guzietan.

Andregaiak :

Nik, I...k, hartzen zaitut zu, I..., senartzat  
eta zuri leial egonen naizela hitzemaiten,  
zorionean eta zoritxarrean, osasunean eta erialdian,  
zure maitatzeko nere biziko egun guzietan.

2

Senargaiak :

I... nahi duzu izan nere emazte ?

Andregaiak :

Bai ( nahi dut )

Eta zuk, I... , nahi duzu izan nere senar ?

Senargaiak :

Bai ( nahi dut ).

Nik, I...k, hartzen zaitut zu, I..., emaztetzat,  
eta izanen naiz zure senar.

Hitzemaiten dautzut leialki maitatuko zaitudala  
zorionean eta ezinbertzean nere bizi guzian.

Andregaiak :

Nik, I...k, hartzen zaitut zu, I..., senartzat,  
eta izanen naiz zure emazte.

Hitzemaiten dautzut leialki maitatuko zaitudala  
zorionean eta ezinbertzean nere bizi guzian.

3

Senargaiak :

I..., nahi duzu izan nere emazte ?

Andregaiak :

Bai, nahi dut izan zure emazte.

Eta zuk, I... nahi duzu izan nere senar ?

Senargaiak :

Bai, nahi dut izan zure senar.

Andregaiak :

Hartzen zaitut senartzat eta zurea izan nahi dut.

Senargaiak:

Hartzen zaitut emaztetzat, eta zurea izan nahi dut.

Biek batean :

Elkar leialki maita dezagun  
atseginean eta atsegabea,  
elkar laguntzeko gure bizi guzian.

4

Hiru molde horiek ezin erranak balinbadira ezkongai zenbaitentzat, edo beste arrazoin pastoral baten gatik, apezak beren baia eska diezaieke galde hauk eginez :

Lehenik senargaiari :

I..., nahi duzu I... hartu emaztetzat,  
eta hitzemaiten duzu hari leial egonen zirela  
Zorionean eta zoritxarrean, osasunean eta erialdian,  
haren maitatzeko eta errespetatzeko zure biziko egun guzietan ?

Senargaiak ihardesten du :

**Bai**

Gero andregaiari :

I..., nahi duzu I... hartu senartzat,  
eta hitzemaiten duzu hari leial egonen zirela  
zorionean eta zoritxarrean, osasunean eta erialdian,  
haren maitatzeko eta errespetatzeko zure biziko egun guzietan ?

Andregaiak ihardesten du :

**Bai**

### ***HITZEN FINKATZEA***

Gero apezak edo diakreak erraiten diote :

Elizaren aitzinean eman duzuen hitza  
Jaunak finka dezala  
eta bere benedizioez bete zaitzatela.  
Jainkoak bateratu duena, gizakiak ez beza berex.

*Edo*

Elizaren aitzinean elkarri eman duzuen hitza  
gure lehen burasoak parabisuan bat egin zituen Jainkoak  
Abrahamen, Izaaken eta Jakoberen Jainkoak  
finka eta benedikata dezala Kristoren baitan.  
Jainkoak bateratu duena, gizakiak ez beza berex.

***ERAZTUNEN BENEDIKATZEA ETA EMAITEA***

Hala beharrean parte hau utz daiteke egin gabe. Egiten bada, hauta hemen diren otoitzetarik bat.

1 Jaunak benedikata ditzala + eraztun hau  
elkarri emanen dituzuenak amodio eta leialtasun seinale bezala.

Amen

2

Jauna, benedikata-zkitzu  
zure izenean benedikatzeko + ditugun eraztun hau.  
Emozute I... eta I...-ri elkarri osoki leial egoitea,  
zure nahia eginez bakean irautea,  
eta beti elkarren amodioan bizitzea.

Amen

3

Jauna, benedikata + eta saildu-zkitzu  
I... eta I... zure zerbitzariak beren amodioan.  
Eraztun hau izan ditezela hauientzat  
leialtasun seinale eta elkarren amodioaren oroigarri.

Amen

4

Jainko gure Jauna,  
gurekin batasun egin duzu Jesu Kristoren bitartez :  
benedikata-zkitzu + orai eraztun hau;  
I... eta I...-rentzat izan ditezela  
beren leialtasunaren seinale, eta amodioaren oroigarri.

Amen

Nahi bada, ur benedikatuarekin ihintza daitezke, eta gero ezkonberrieri emaiten dira.

Gizonak emaztearen erhan ezartzen du, erranez ( nahi bada )

I... har-azu eraztun hau  
nere amodioaren eta leialtasunaren seinale.

Giristinoa balinbada, erran dezake :

( Aitaren eta semearen eta Izpiritu Sainduaren izenean.)

Gero emazteak berdin:

I... har-azu eraztun hau  
nere amodioaren eta leialtasunaren seinale.

( Aitaren eta Semearen eta Izpiritu Sainduaren izenean.)



## **EZKONBERRIEN BENEDIKATZEA**

Usaian egiten da. Arrazoinak balinbadira, uzten da, eta horren orde erraiten: “Entzun, Jauna....”  
Ezkonberriak, belauniko edo xutik. Apezak edo diakreak eskuak juntaturik erraiten du :

Eta orai, gure otoitzez eska dezagun  
Jainkoaren benediziona ezkonberri hauientzat,  
ezkontzaren grazia egin diotelarik,  
amultsuki bere laguntza eman diezoten.

Ixtant bat otoitz egin ixilik. Gero eskuak haien gainera hedatuz, dio:

Aita guziz saildua, mundu guziaren Egilea,  
gizona eta emaztea zure idurira egin dituzu  
eta heien batasuna zure benedizioneaz aberastu.

I... eta I...-rentzat apalik otoizten zaitugu

ezkontzaz bat egin duten egun huntan :

haien gainera jauts bedi zure benedizione nasaia.

Izpiritu Sainduaren indarrak zure amodioaz sutan eman ditzala;

ezkontzan elkarri emanik zoriona kausi dezatela;

beren bizia zuzenki gida dezatela,

[ eta buraso zintzo izan ditezela ] .

Poz-egunetan gorets zaitzatela, eta atsegabeetan bila;

lan orduan, jakin bezate zu hor zaituztela lagun ;

eta behar orduan sendi zu hor zirela heien arintzeko.

Eta xahartze zoriontsu batera heldurik,

joan ditezela zeruko Erreinurat

hemen dituzten adiskide guziekin.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez

Amen

Benedikatze hori ez balinbada egiten, otoitz hau erraiten da:

Entzun, Jauna, gure galdeak,

eta bihotz onez zaint zazu

gizadiaren bizirako eta garapenerako ezarri duzun ezkontza;

zure graziak begira dezala zure ganik sortzea duena.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez

Amen

### **GORESMEN KANTUA**

Ezker onezko kantu bat eman daiteke, edo organoa jotzen da.

**EZKONBERRIEN OTOITZA**

Nahi badute, otoitz hau egin dezakete, edo berek asmatu bat.

Gure Jainko Jauna, zorion egun huntaraino ekarri gaituzu,  
eta gure esker ona erran nahi dautzugu.  
Bat bestearen gomendio eman gaituzu :  
orai, elkarrekin gure amodioa gomendatzen dautzugu.  
Jauna, hau dautzugu eskatzen:  
bat atxik gaitzazu, zure bakean eta elkarri leial biziak diraueno.

**FEDEDUNEN OTOITZA**

Apezaren deia:

Besta huntako bozkarioan gaudela,  
otoitz egin diezogun konfiantzarekin Jaunari  
ezkonberrientzat, hemen bilduak girenentzat  
Elizarentzat eta munduarentzat.

*Edo*

Haurride maiteak,  
gure otoitzez lagunt dezagun familia berri hau :  
Jainko guziz onak handiaraz dezala hauen amodioa,  
eta munduko familia guziera eman bere laguntza.

Huna otoitz xede batzu; beste batzu kausituko dituzue 85-86. orrialdeetan. Edo ere zuihauk molda ditzazkezue. Ihardespena : har usaiakoetarik bat.

- 1 Ezkonberrientzat eta hauien familiaren zorionarentzat,  
egin dezagun otoitz.
- 2 Hauien etxeko eta lagunentzat, eta lagundu dituzten guzientzat, e.d.o.
- 3 Ezkontzari buruz prestatzen ari direnentzat,  
eta Jaunak beste bokazione batera deitzen dituen guzientzat, e.d.o.
- 4 Munduko familia guzientzat,  
eta nazioeen arteko bakea finka dadin, egin dezagun otoitz.
- 5 Gure familiarik joan zaizkiguentzat, eta hil guzientzat, e.d.o.
- 6 Jainkoaren herri saildua den Elizarentzat,  
eta giristino guzien arteko batasunarentzat, egin dezagun otoitz.

***GURE AITA***

Fededunen otoitzeko xedeen ondotik apezak edo diakreak segidan Gure Aita otoitzaren deia egiten du, hemen diren hitzekin, edo beste batzuekin.

Jainkoa guzien Aita da,  
 nahi du haren haurrak elkarren amodioan bizitzea;  
 gure artean giristino direnek otoitz egin diezotela  
 Jainkoaren haurren otoitza,  
 Jesu Kristo gure Jaunak berak irakatsi daukuna erranez :

Gure Aita.....

**OSPAKIZUNAREN BURURATZEA**

Orduan apezak edo diakreak herria benedikatzen du, erranez:

Eta zuek, hemen zirezten guziak  
 benedika zaitzatela Jainko ahalguzidunak,  
 Aitak eta Semeak eta Izpiritu Sainduak.  
 Amen

***EZKONBERRIERI ESKAINIA DEN EZKONTZAREN OROITZAPENA***

Ikus 87- 88. orrialdeak

**EZKONT-AGERIAREN SINATZEA**

Meza bururatu-eta, lekukoek, apezak eta ezkonberriek ezkont-ageria sinatzen dute.

Sinatzea denen aitzinean egin bedi, ahal bezenbatean hortarako prestatua den mahain ttipi batean, eta ez aldarean.



## **IRAKURGAIAK**

*Ezkontza eguneko mezan, eta mezarik gabeko ezkontzetan, hemen emanak diren irakurgaietan egin hautua. Beti bat bederen hautatu behar da argi eta garbi ezkontza aipatzen duena. Irakurgai horiek seinale hau \* daukate.*

1\* “ *Gizon eta emazte egin zituen* “

**Hasiera liburutik**

1, 26-28. 31a

26 Eta Jainkoak erran zuen:

“ Egin dezagun gizona gure iduriko, gure eiteko.

Izan bedi itsasoko arrainen, zeruko hegaztien, abereen,  
basihazi guzien, eta lurrean dabilzan mamutx guzien nagusi.”

27 Jainkoak egin zuen gizona bere iduriko,

Jainkoaren iduriko egin zuen; gizon eta emazte egin zituen.

28 Jainkoak benedikatu zituen eta erran zioten:

“ Sor-zkitzue umeak eta ugaritu zaitezte,  
bete zazue lurra eta zuen meneko ezar.

Menperazkitzue itsasoko arrainak, zeruko hegaztiak,  
eta lurrean harat eta hunat dabilzan abere guziak.”

31 Berak egin guzia ikusi zuen Jainkoak:

eta huna osoki ona zela.

2\* “ *Eta biak bat izanen dira* “

**Hasiera liburutik**

2, 18-24

Hastean, Jainko Jaunak zeru-lurra egin zituenean, erran zuen :

18 “ Ez da on gizona bakarrik egotea.

Eginen diot berari dagokion laguna.”

19 Jainko Jaunak lurretik moldatu zituen

landetako abere eta zeruko hegazti guziak,

eta gizonari ereman ziozkan, zein izen emaiten zioten ikusteko.

Izaite bizidunak ziren, eta gizonak eman zion izen bat bakotxari.

20 Beraz, gizonak ezarri ziozkaten izenak

abere guziera, zeruko hegazti guziera, eta landetako abere guziera.

Bainan ez zuen aurkitu berari zegokion lagunik.

21 Orduan, Jainko Jaunak igorri zion misteriozko lo bat,

eta gizona lokartu zen.

Jainko Jaunak sahets-hezur bat kendu zion, eta gero hetsi.

22 Gizonari kendu zion sahets-hezurraz emaztea moldatu zuen,

eta gizonari ereman zion.

23 Gizonak erran zuen orduan:

“ Hau bai dela ene hezurren hezur, eta ene haragiaren haragi.

Hau “ emazte” deituko da.”

24 Horrengatik gizonak bere aitamak utziko ditu,

eta emaztearekin elkartuko da, eta biak bat izanen dira.

3\* “ Izaakek Rebeka maitatu zuen eta kontsolatu zen amaren heriotzeaz.”

**Hasiera liburutik**

24, 48-51. 58-67

Abrahamen mutilak erran zion Labani:

- 48 “ Jaunari, Abraham nere nagusiaren Jainkoari,  
eskerrak emaiten diozkat, bide xuxenetik ekarri bainau,  
nere nagusiaren anaiaren alaba haren semearentzat hartzeko.
- 49 Orai, nere nagusiaren aldera leial eta zintzo agertu nahi baduzue,  
erradazue; bestela ere erradazue, ezker eta eskuin itzul nadin.”
- 50 Laban eta Batuelek erran zioten:  
“ Jaunarenganik heldu zaigu hau;  
guk ez dezakegu ez onik ez txarrik erran.
- 51 Hor duzu Rebeka, har-azu eta zoazi,  
izan bedi zure nagusiaren semearen emazte, Jaunak erran bezala.”
- 58 Deitu zuen Rebeka eta erran: “ Nahi duzu gizon horrekin joan?”  
Ihardetsi zuen: “ Bai.”
- 59 Utzi zituzten joaitera Rebeka eta hunen unidea,  
bai eta Abrahamen mutila eta haren lagunak.
- 60 Rebeka benedikatu zuten, erranez:  
“ Zu, gure arreba, bilaka zaitte miliun eta miliun,  
zure ondokoak izan ditezela beren etsaien nagusi.”
- 61 Rebeka xutitu zen bere neskatoekin,  
kameluen gainerat igan, eta gizonari jarraiki.  
Mutilak hartu zuen Rebeka eta joan zen.
- 62 Izaak basamortuan barna zabilan, Negebeko lurraldean bizi baitzen.
- 63 Atera zen arratsaldean, eta begiak altxaturik,  
hara non ikusten dituen kamelu batzu heldu.
- 64 Rebekak ere, begiak altxaturik, ikusi zuen Izaak.  
Kamelutik jauzi egin zuen,
- 65 eta galdegin zion mutilari:  
“ Nor da baserrian barna biderat heldu zaigun gizon hori?”  
Mutilak ihardetsi : “ Nere nagusia.”  
Orduan, bere estalgia harturik bere burua estali zuen.
- 66 Gero mutilak Izaaki erran ziozkan egin zituen guziak.
- 67 Izaakek bere oihal-etxolarat ereman zuen Rebeka.  
Hartu zuen eta bere emazte egin.  
Maitatu zuen, eta hola kontsolatu zen bere amaren galtzeaz.

4\* *“ Zeruko Jainkoa, on izan bedi zuretzat, seme, eta eman diezazula urrikalmendu eta bake.”*

**Tobiren liburutik**

7,9-10. 11-17

9 Raguelek mahainean jartzera gomiatu zituelarik, Tobik erran zion:

10 “ Egun ez dut nik hemen ez janen, ez edanen,  
non ez dautazun ene galdea onartzen,  
eta hitzemaiten, Zara, zure alaba, emanen dautazula.”

11 Dudan baitzagon, eta galde horri ez baitzuen deusere ihardesten,

12 Rafael aingeruak erran zion:

“Ez izan beldur zure alabaren emaiteko Tobiri:  
Jainkoari leial dago, eta horrekin behar du ezkondu;  
horra zertako ez zezaken beste nehork izan zure alaba.”

13 Orduan Raguelek erran zuen:

14 “ Ikusten dut orai Jainkoak onartu dituela nere otoitz eta nigarrak;  
ohartzten naiz, zuek biak nereganat ekarri zaituztela,  
nere alabak bere leinuko gizon bat har zezan  
Moisen legearen arabera.

Eta orai, Tobi, ez lotsa: emaiten dautzut.”

15 Bere alabaren esku eskuina harturik,

Tobiren esku eskuinean ezarri zuen, erranez:

“ Abrahamen Jainkoa, Izaaken Jainkoa, Jakobena Jainkoa  
izan bedi zuekin,  
berak bat egin zaitzatela, eta bere benedizioneaz bete.”

16 Paper bat harturik, izkiriatu zuten ezkont-ageria.

17 Eta gero egin zuten eztei-bazkaria, Jainkoa benedikatu.

5\* *“ Zorionean bizi gaitezela xahartzeraino, biak elkarrekin.”*

**Tobiren liburutik**

8,5-10

Eztei arratsean, Tobik Zarari erran zion:

5 “ Saindu-herri baten umeak gira, eta ez gaitezke elkarri junta,  
Jainkoa ezagutzen ez duten jendeen gisa.”

6 Biak xutitu ziren eta batean hasi kartsuki otoitzean.

Jainkoari bere laguntza galdatzen zioten.

7 Tobik zion : “Jauna, gure aiten Jainkoa,  
zeru-lurrek benedika zaitzatela, bai eta itsaso, iturri, ibaiek,  
eta heietan bizi diren guziek.

8 Zuk duzu egin Adam lurreko buztinetik,  
zuk diozu eman Eba laguntzat.



9       Eta orai, Jauna, badakizu Izraelgo alaba hau hartzen dutala,  
 ez ene gutizia tzarren betetzeko,  
 bainan bakarrik familia baten moldatzeagatik,  
 zure izenaren benedikatzeko menderen mendetan.”

10       Zarak erran zuen halaber:  
 “ Urrikal zakizkigu, Jauna, urrikal zakizkigu;  
 zorionean bizi gaitezela xahartasuneraino, biak elkarrekin.”

6\*       “ Jaunaren beldurra duen emaztea goresgarria da.”

**Erran Zaharrak liburutik**

31,10-13.19-20.30-31

10       Nork aurki etxeoandre ona?  
 Perlek baino askoz gehiago balio du.  
 11       Konfiantza osoa du senarrak haren baitan:  
 ez da harekin galduan aterako.  
 12       Biziko egun guzietan zoriona ekartzen dio, ez zorigaitza.  
 13       Artilea eta lihoa biltzen ditu,  
 gogotsu lan egiten dute haren eskuek.  
 19       Iruten lotzen da haren eskua, kilua harturik.  
 20       Dohakabeari eskua zabaltzen dio, eta behartsuari laguntza emaiten.  
 30       Gezurrezkoa da xarma, hutsa edertasuna;  
 goresgarria, aldiz, Jaunaren beldurra duen emaztea.  
 31       Emazkiozue eskerrak bere lanaren gatik:  
 herri guziaren aitzinean goretsiko dira haren egintzak.

7       “ Azkarra da amodioa, nola herioa.”

**Kantiken kantika**

2,8-10.10; 16a; 8, 6-7a

8       Huna ene maitea heldu, mendiz mendi, jauzika,  
 mendixkaz mendixka, punpaka.  
 9       Ene maiteak iduri du orkatza, oreinaren umea.  
 Huna non dagon murru gibelean, leihotik begira,  
 hesi arteketarik barrandan.  
 10       Ene maitea mintzatu zait, erran daut:  
 “ Jeiki zaite, ene maitea, ene urtxoa, ene eder-ederra, zato!  
 14       Ene urtxoa, harroka arteketan, harresi ziloetan,  
 zure aurpegia erakutsadazu, zure mintzoa entzunaraz.  
 Goxoa baita zure mintzoa, eta ederra zure aurpegia.”  
 16       Ene maite maitea nerea da, eta ni harena; erran daut:  
 8,6       “ Nere izena ezarria izan bedi zure bihotzean, zigilu baten pare ;

zigilu baten pare zure besoan.  
 Azkarra baita amodioa, nola herioa;  
 ezin asea amodio mina, nola hilen egoitza:  
 haren oldarrak, suzko oldarrak, Jainko garrak.  
 7 Uholdeak ezin itzalia da amodioa, ibaiek ezin itoa.

8\* “ Jaunaren mendietan iguzkia ateratzen den bezala, etxearen argi emazte sainduaren ederra ”

**Ziraken liburutik**

26, 1-4. 13-16

1 Dohatsu emazte onaren senarra, bietan eder haren bizia.  
 2 Bertuteko emaztea, senarraren gozoa :  
 harek baduke zorion, biziak diraueno.  
 3 Emazte baliosa, zer ontasuna,  
 Jaunak bere zerbitzarier emaiten duen saria;  
 4 aberats ala pobre, alai daukate bihotza, eta beti argi begitartea.  
 13 Emaztearen grazia, senarraren bozkarioa,  
 hari esker ongi biziko da.  
 14 Xuhurki mintzo den emaztea, Jaunaren dohaina.  
 Ez du parerik emazte ongi moldatuak.  
 15 Zer dohain miresgarria emazte ixila.  
 Bere buruaren jabe dena, ontasun paregabea.  
 15 Jaunaren mendietan iguzkia ateratzen den bezala,  
 halaber daiteke bere etxearen argi, emazte sainduaren ederra.

9 “ Izrael etxearekin eta Judako etxearekin Batasun berria egingen dut.”

**Jeremi profetaren liburutik**

31, 31-32a.33-34

31 Hau dio Jaunak: huna heldu egunak,  
 Izrael etxearekin eta Juda etxearekin Batasun berria egingen baitut.  
 32 Ez heien arbasoekin egin nuen Batasuna bezalakoa,  
 Egiptotik ateratzeko eskutik hartu nituenean.  
 33 Bainan huna Izrael etxearekin egingen dutan Batasuna,  
 egun horien ondotik, dio Jaunak.  
 Nere Legea barne barnean ezarriko diotet, bihotzean idatziko.  
 Ni heien Jainkoa izanen naiz, eta heiek nere herria izanen dira.  
 34 Ez dute elkarri irakaste beharrik izanen,  
 elkarri diotela: “ Ezagutazu Jauna!”  
 Denek, ttipi ala handi, ezagutuko bainaute, dio Jaunak.  
 Barkatuko diozkatet beren hobenak,  
 eta heien bekaturik ez dut gehiago gogoan izanen.

10 “ *Nork berexiko gaitu Kristoren maitasunetik ?* “

**Jondoni Paulok Erromanoeri**

8, 31-34. 35. 37-39

Haurrideak,

31 Jainkoa gure alde badugu, nor izanen dugu kontra?

32 Ez du errefusatu bere Semea, gu guzien alde eman du:  
nolaz ez dauzkigu denak emanen harekin batean ?

33 Nork salatuko ditu Jainkoak hautetsiak,  
Jainkoak berak zuzentzat onartu baditu ?

34 Nork kondenatuko ditu ? Jesu Kristo hil denaz geroz;  
gehiago dena: piztu da, Jainkoaren eskuinean dago,  
eta gure alde otoitzean ari.

35 Nork berexiko gaitu Kristoren maitasunetik ?

Atsegabeak, hersturak, pertsekuzioneak,  
goseak, gabeziak, irriskuak, ezpatak ?

37 Ez, horietan guzietan garaile ateratzen gira gain-gainetik,  
maitatu gaituen Hari esker.

38 Bai, badakit segur: ez herio, ez bizi,

ez aingeru, ez goiko beste indar, ez oraiko, ez geroko,

39 ez ortziko, ez eta lurpeko indar, ez beste edozein kreatura,  
deus ez da berexten ahalko gaituenik

Jesu Kristo gure Jaunaren baitan den Jainkoaren maitasunetik.

11 “ *Eskain zuen buruak, opari bizi, saildu eta atsegingarri Jainkoarentzat.*”

**Jondoni Paulok Erromanoeri**

12,1-2 . 9-18

*laburra : 12,1-2. 9-13*

1 Haurrideak, otoizten zaituztet, Jainkoaren urrikalmenduarengatik,  
zuen buruak eskain ditzazuen opari bizi,  
saildu eta atsegingarri Jainkoarentzat:  
hori da egiazko zuen adorazionea.

2 Ez zaitezte mundu hunen iduriko egin,  
bainan alda zaitezte, zuen pentsa-moldeak berrituz:  
Hola berexten ahalko duzue zer den Jainkoaren nahia,  
zer den ona, atsegingarri zaiona eta on baino hobea.

9 Zuen amodioa zinezkoa izan bedi.

Egon gaizkitik urrun, ongiari atxikiak.

10 Elkar maita haurride gisa, elkar ohora zeinek gehiago.

11 Ez izan epel, ez eta nagi, zerbitza Jauna suharki.

12 Izan esperantzan alegera, atsegabea iraunkor, otoitzari jarraikiak.

60

14 Benedika gaizki egileak ; benedika eta ez madarika.  
15 Bozkaria, bozkarioz daudenekin, egin nigar nigarrez daudenekin.  
16 Elkar adi zazue, ez izan handinahi, baina apaletarat ekarriak.  
17 Nehori ez bihur gaizkia gaizkiaren ordain;  
entseia zaitezte ongiaren egitera jende guzien aitzinean.  
18 Zuen aldetik eta ahal den neurrian, izan bakean guziekin.

12 “ Ongi etorri egizue elkarri, Kristok ongi etorri egin dautzuen bezala. “

**Jondoni Paulok Erromanoeri**

15, 1b-3a . 5-7 . 13

Haurrideak,  
1 ez dezagun bila guhauri atsegin zaikuna.  
2 Entseia gaitezen guziak aldeko lagunari atsegin emaitera,  
haren ona eta fedean aitzinatzea bilatuz.  
3 Kristok ere ez zuen bere atsegina bilatu.  
5 Iraupenaren eta kontsolamenduaren Jainkoak eman diezazuela  
elkarrekin akortean bizitzea, Jesu Kristok nahi bezala.  
6 Orduan, bihotz batez eta aho batez goretsiko duzue Jainkoa,  
Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.  
7 Beraz, ongi etorri egizue elkarri,  
Kristok ongi etorri egin dautzuen bezala, Jainkoaren aintzarako.  
13 Esperantza-iturri den Jainkoak  
bozkarioz eta bakez bete zaitzatela, zuek, fedea duzuenak,  
esperantzaz gaindi zaitezten Izpiritu Sainduaren indarrez.

13 “ Izpiritu Sainduaren tenplua da zuen bihotza.”

**Jondoni Paulok Korintiarreri**

1a: 6, 13c-15a. 17-20

Haurrideak  
13 gure gorputza Jesus Jaunarentzat da, eta Jauna gorputzarentzat.  
14 Eta Jainkoak, Jauna piztu duenak,  
gu ere piztuko gaitu bere indarraz.  
15 Ez ote dakizue zuen gorputzak Kristoren menbro direla ?  
17 Jaunari juntatzen dena, harekin izpiritu bakar bat egiten da.  
18 Ihes egizue lizunkeriarri.  
Gizakiak egiten dituen beste bekatu guziak  
gorputzetik kanpo gelditzen dira;  
bainan lizunak bere gorputzaren kontra egiten du bekatu.  
19 Ez ote dakizue ?

Zuen baitan den eta Jainkoaren ganik duzuen  
 Izpiritu Sainduaren tenplua da zuen gorputza.  
 Ez zirezte zihaturen jabe,  
 20 Jaunak kario erosi baitzaituzte.  
 Goretsazue, bada, Jainkoa zuen gorputzaz.

14 “ *Maitasunik ez badut, deus ez naiz.*”

**Jondoni Paulok Korintiarri**

1a: 12, 31 – 13, 8a

Haurrideak,  
 31 gutizia zatzue Jainkoaren dohainik hoberenak.  
 Eta orai biderik hoberena erakutsiko dautzuet.  
 13,1 Lurreko eta zeruko hizkuntza guzietan mintzaturik ere,  
 karitaterik ez badut, maitasunik ez badut,  
 brontze soinulari, edo zinbal burrunbari baizik ez naiz.  
 2 Profeta dohaina, misterio guzien  
 eta munduko jakintza guziaren ezagutza,  
 bai eta mendiak lekuz aldatzerainoko sinestea ukanik ere,  
 maitasunik ez badut, deusik ez naiz.  
 3 Dutan guzia gose direnen artean partekatu,  
 eta nere gorputza erretzera emanik ere,  
 maitasunik ez badut, hori deusetako ez dut.  
 4 Maitasuna jasankorra da eta laguntza emailea;  
 Maitasuna ez da bekaiztia, ez da ahoberoa, ez urguluntzia.  
 5 Ez du behar ez denik egiten, ez du berea bilatzen,  
 ez da haserretzen, ez du herrarik atxikitzen.  
 6 Zuzengabekeriak ez du bozkariatzen,  
 baina egian du kausitzen bere poza.  
 7 Dena barkatzen du, dena sinesten, dena igurikatzen, dena jasaiten.  
 8 Maitasuna ez da sekulan itzaltzen.

15 “ *Bakarra da Gorputza eta bakarra Izpiritua* ”

**Jondoni Paulok Efesako giristinoeri**

4, 1-6

Haurrideak,  
 1 nik, Jaunarengatik preso nagonak, eskatzen dautzuet  
 ukan duzuen deiari doakion bezala bizi zaitezten.  
 2 Izan apal, ezti eta jasankor; elkar jasan zazue maitasunez.  
 3 Berma zaitezte Izpirituak emaiten duen batasuna begiratzera  
 bakearen lokarritz.

4 Bakarra da gorputza eta bakarra Izpiritua,  
 zuen deiari dagokion esperantza ere bakarra den bezala.  
 5 Bakarra Jauna, bakarra fedea, bakarra bataioa;  
 6 bakarra guzien Jainko eta Aita,  
 guzien gainetik dagona,  
 guzien bidez ari eta guzien baitan bizi dena.

16\* “*Handia da misterio hau: Kristori eta Elizari loturik ikusten dut.*”

**Jondoni Paulok Efesako giristinoeri**

5, 2a.21-33  
*laburra:5, 2a.25-32*

Haurrideak,  
 2 Bizi zaitezte maitasunean, Kristo bezala:  
 harek maitatu baigaitu, eta bere burua guretzat eman baitu.  
 21 [ Izan zaitezte elkarren menpeko, Kristori diozuen errespetuagatik:  
 22 emazteak senarraren menpeko, Jesus Jaunaren menpeko bezala,  
 23 senarra emaztearen buru baita, Kristo Elizaren buru den bezala,  
 bere gorputz horren Salbatzailea delarik;  
 24 Eliza Kristoren menpeko den bezala,  
 emazteak ere senarraren menpeko izan daitezela denetan.]  
 25 Senarrak, maita zuen emaztea  
 Kristok Eliza maitatu eta haren alde bere burua eman duen bezala.  
 26 Hola saildu egin nahi zuen,  
 Bataioko urez eta biziaren hitzaz garbituz.  
 27 Beretzat prestatu nahi zuen Eliza, distiratsua,  
 zikinik eta zimurrik edo deus holakorik gabea, saildu eta garbia.  
 28 Gisa berean, senarrek ere beren gorputza bezala  
 maitatu behar dute beren emaztea.  
 29 Nehork ez du bere gorputza hastio;  
 aitzitik hazten du eta artatzen.  
 Berdin Kristok Eliza,  
 30 gu haren gorputzeko membro baigira.  
 Liburu Sailduak dion bezala:  
 31 Horrengatik gizonak bere aitamak utziko ditu,  
 eta emazteari elkartuko zaio,  
 eta biak bat izanen dira.  
 32 Handia da misterio hau,  
 eta nik Kristori eta Elizari loturik ikusten dut.  
 33 [ Dena den, zuetarik bakotxak maita beza bere emaztea  
 bere burua bezala, eta emazteak errespeta beza senarra. ]

*Ohar huni: [ ] artean diren lerroak utz daitezke erran gabe.*

17 “*Bakearen Jainkoa zuekin izanen duzue.*”

**Jondoni Paulok Filipeko giristinoeri**

4,4-7

Haurrideak,  
 4 bozkaria zaitezte beti Jauna baitan;  
 berriz diozuet: bozkaria zaitezte.  
 5 Ezaguna izan bedi gizaki guzientzat zuen bihotz ona.  
 Hurbil da Jauna.  
 6 Ez griña deusetaz,  
 bainan gorabehera guzietan ager zuen eskariak Jainkoari,  
 otoitzez eta galdez eta eskerrak emanez.  
 7 Eta guk asma dezakeguna baino handiago den Jainkoaren bakeak  
 zainduko ditu zuen gogo-bihotzak Kristo Jesusen baitan.  
 8 Bertzalde, haurrideak, egia den guzia, gisako, zuzen, garbi,  
 maitagarri eta goresgarri, bertutetsu eta onargarri den guzia,  
 hura dadila konda zuentzat.  
 9 Egizue nereganik ikasi, ukan et entzun duzuen  
 eta nere baitan ikusia.  
 Eta bakearen Jainkoa zuekin izanen duzue.

18 “*Oroz gainetik, izan maitasuna, hori baita elkartasunaren lokarria.*”

**Jondoni Paulok Koloziarreri**

3,12-17

Haurrideak,  
 12 Jainkoak hautatu zaituztenaz geroz,  
 haren saildu eta maiteak izaiteko,  
 jantz zuen bihotzean urrikalmendua, onezia,  
 apaltasuna, eztitatsuna, pazientzia.  
 13 Elkar jasan zazue eta elkarri barka,  
 zuen arteko arrangurarik balinbaduzue.  
 Jaunak barkatu dautzuen bezala, zuek ere barka.  
 14 Horien guzien gainetik izan maitasuna,  
 hori baita elkartasunaren lokarria.  
 15 Eta Kristoren bakea izan bedi nagusi zuen bihotzetan,  
 hortara deituak baitzirezte, denak gorputz berean.  
 Eskerrak bihurtuz bizi zaitezte.  
 16 Bizi bedi zuen baitan Kristoren hitza bere aberastasun betean:  
 Irakats eta zuzent elkar zuhurtzia osoz.  
 Salmoak, himnoak eta kantika goi-argituak emanez,  
 kanta Jainkoari zuen bihotzetan zuen esker ona.

17 Erranen edo eginen duzuen guzia,  
egizue Jesus Jaunaren izenean,  
hunen bidez Jainko Aitari eskerrak emanaz.

19 “ *Ezkontza, guziek errespetatu bezate.*”

**Hebrearreri epixtolatik**

13, 1-4a. 5-6b

Haurrideak,  
1 irauzazue haurride-maitasunean.  
2 Ez ahantz arrotzari ongi etorri egitea  
horri esker, jakin gabe aingeruak etxerat hartu dituztenak badira.  
3 Gogoan izan preso daudenak, heiekin preso bazinezte bezala;  
orrotik tratatu tzarrak jasaiten dituztenez,  
zuek ere, heiek bezala, gorputza baituzue.  
4 Ezkontza errespetatu zuzue,  
eta izan garbi ezkontza-harremanetan.  
5 Ez izan dirugose; egon pozik duzuenarekin,  
Jainkoak errana baitu: Ez zaitut utziko, ez baztertuko.  
6 Horrengatik fidantziaz beterik erran dezakegu:  
Jauna dut laguntzaile, ez naiz deuseren beldur.

20\* “ *Izan zaitzete denak bat, urikalmenduz eta elkarren amodioz beteak.*”

**Jondoni Petriren lehen epixtolatik**

3, 1-9

Haurrideak,  
1 zuek, emazteak, zaudezte zuen senarren menpeko;  
hauetarik batzuk Jainkoaren hitza onartzen ez badute ere,  
beren emazteen bizimoldeak, eta ez hitzek,  
salbamendurako irabaziko ditu,  
2 heien bizi molde garbi eta errespetuzkoa ikusiz.  
3 Emazteak, zuen apaindura ez bedi kanpokoak izan,  
hala nola ile kuxkulatu, urrezko edergailu, soineko eder,  
4 bainan bai barnekoa,  
bihotz bat bere goxo eta ezintasuna behinere galtzen ez dituenak :  
hori baita balio handikoa Jainkoaren aitzinean.  
5 Hola apaintzen ziren lehengo emazte sailduak,  
beren esperantza Jainkoaren baitan ezarria zutenak:  
beren senarren menpeko egoiten ziren.  
6 Zara holakoa zen, Abrahami obeditzen zion,  
“ ene jauna ” erraiten ziola.



Zuek haren alabak bilakatu zirezte;  
ongia egizue, beldur eta lotsarik batere gabe.  
7 Berdin, zuek, senarrak, bizi zaitezte zuen emazteekin,  
orrotuz jite sendikorragoa dutela,  
eta erakuts errespetua heien alderat,  
zuek bezala betiko biziaren dohaina ukanen baitute.  
Hola, ez duzue trabarik izanen elkarrekin otoitz egiteko.  
8 Dena den, izan zaitezte guziak gogo eta sendimendu bereko,  
elkarren haurride on, urrikalkor eta apal.  
9 Ez ordain gaizkia gaizkiari, ez eta laidoa laidoari;  
aitzitik, galda benediziona bestentzat,  
Jainkoak bere benedizionearen ukaiteko deitu baitzaituzte.

21 “*Maita dezagun egitez eta egiaz.*”

**Jondoni Joaniren lehen epixtolatik**

3,18-24

Ene haurtxoak,  
18 ez dezagun hitzez eta mihiz maita, bainan egitez eta egiaz.  
19 Hortarik jakinen dugu egiarenak girela,  
eta Jainkoaren aitzinean bihotza bakean izanen dugu.  
20 Zeren gure bihotzak kondentzen bagaitu ere,  
gure bihotza baino handiagoa da Jainkoa, eta denak badazki.  
21 Nere maiteak, gure bihotzak kondentzen ez bagaitu,  
fidantzia osoan jo dezakegu Jainkoarenganat.  
22 Eta eskatu guzia ardiesten dugu harenganik,  
haren manamenduak begiratzen baititugu, eta atsegin zaiona egiten.  
23 Eta huna Jainkoaren manamendua:  
sinets dezagun haren Seme Jesu Kristo baitan,  
eta elkar maita, manatu daukun bezala.  
24 Haren manamenduak begiratzen dituen  
Jainkoa baitan dago, eta Jainkoa haren baitan.  
Eta gure baitan dagolako seinalea hau da:  
Berak eman daukun Izpiritua.

22 “*Jainkoa maitasun da.*”

**Jondoni Joaniren lehen epixtolatik**

4,7-12

3 Maite maiteak,  
elkar maita dezagun, maitasuna Jainkoarenganik baita.

66

Maitatzen duena Jainkoarenganik sortua da  
eta Jainkoa ezagutzen du.

8

Maitatzen ez duenak ez du Jainkoa ezagutzen,  
Jainkoa maitasun baita.

9

Hara nola agertu den Jainkoaren gureganako maitasuna:  
Jainkoak bere Seme bakarra mundurat igorri du  
haren bidez bizi gaitezen.

10

Huntan da maitasuna: ez dugu, guk, Jainkoa maitatu,  
Harek gaitu maitatu,  
eta bere Semea igorri du  
gure bekatuengatik eskainia den oparia.

11

Maite maiteak,  
Jainkoak hola maitatu izan bagaitu,  
guk ere elkar maitatu behar dugu.

12

Jainkoa ez du nehork nehoiz ikusi.  
Bainan, elkar maitatzen badugu,  
Jainkoa gure baitan dago,  
eta haren maitasuna bere beterat heldua da gure baitan.

23

*“ Dohatsu Bildotsaren ezteietara deituak.”*

**Jondoni Joaniren Apokalipza liburutik**

19, 1. 5-9a

Nik, Joanik,

1

jendetze handi baten bezalako mintzo ozena entzun nuen zeruan,  
erraiten : “ Alleluia !

Gure Jainkoarenak dira salbamendua, aintza eta indarra.”

5

Eta tronutik mintzo bat atera zen, ziona:

“ Goretsazue gure Jainkoa haren zerbitzari guziek,  
eta haren beldurra duzuen guziek, ttipi ala handi.”

6

Orduan entzun nuen jendetze handiaren mintzoa bezalakoa,  
ur handien eta ortzantz indartsuen burrunba bezalakoa, erraiten :  
“ Alleluia! Errege jarri da gure Jauna, Jainko ahalguziduna.

7

Bozkaria gaitezen, egin besta eta eman diezogun aintza,  
zeren horra Bildotsaren ezteiak.

Apaindua dago haren emaztea,

8

Jainkoak eman baitio jantzi zoragarria,  
liho garbiz eta distiratsuz egina,  
– lihoa, fededunen egintza onak dira –.”

9

Gero, aingeru batek erran zautan :

“ Izkiria : Dohatsu Bildotsaren ezteietara deituak !”

## SALMOAK

32. *Leloa :* *Jainkoak dena munduz mundu  
Bere bihotzaz betetzen du.*

Herriak Jauna badu Jainko,	Jainko Jaunaren beha gaude :
Hura dohatsu sekulako.	Hura guk lagun, adiskide.
Huna bai Jauna dena begi	Harekin goazi zeru alde :
Hari daudenen zain egoki.	Jaun izenean dugu fede.

Gure gainerat ager, Jauna,  
Zure betiko bihotz ona.  
Gure bihotza baita dena  
Zuri osoki, Jainko Jauna.

33. *Leloa :* *Jaunari beti esker emaiten nagokio.*

Edo: *Goza ta beha zoin den gozoa,  
Zoin den maitea gure Jainkoa.*

Jaunari beti esker emaiten nagokio,  
Hari nik beti laudorio.  
Jaunaren baitan arima kantuz banabila,  
Bihotz apalak pitz ditela.

Denek batean gorets dezagun Jainko Jauna,  
Eta goraipa Jaun izena.  
Jaunaren bila nindoan eta huna Jauna:  
Beldurra baitut urrun joana.

Jaunari beha egon begiak dirdiraka:  
Ez zaitezten gal, ez ahalka.  
Dohakabeak dei egin dio, Jaunak entzun.  
Hersturik ez dut, hura lagun.

Armaden pare dago Jaunaren Aingerua:  
Fededunen zain xutitua.  
Gozatuz goza, beha ba zoin den gozo Jauna:  
Dohatsu hari darraikona.

102. *Leloa :* *Jainkoak badu bihotz on eta urrikalmendu.*

Edo *Jainko bihotza ezin neurri,  
Jainkozalentzat miresgarri.*

Eskerrak eman, nere arima, Jainkoari,  
Nere barneko guziek, haren izenari!  
Eskerrak eman, nere arima, Jainkoari,  
Ez nehoiz ahantz zein usu zaitzun urrikari!

Ona da Jauna eta guzien urrikari,  
Ez hasarrekor bainan bihotzen altxagarri.  
Nola baitio aitak behatzen semeari,  
Hala da Jauna, jainkozaleen urrikari.

Jainkozalentzat Jainko bihotza ezin neurri:  
Betieretik betierean miresgarri.  
On dagiote heien semeen semeeri  
Balinbazaizko josiak eta zuzen ari.

111. *Leloa :* *Bai dohatsua Jaunaren beldur den gizona,  
Haren nahian goza gozatuz dabilana.*

Semeak azkar izanen ditu mundu huntan;  
Zuzenen haurrak Jainko Jaunaren eskuetan.  
Haren etxean bada ontasun, gozotasun.  
Haren barneko argia deusek ezin ilun.

Ilunbetan du zuzenen argi dirdirutzen,  
Hain baita ezti, bihotz oneko eta zuzen.  
Denentzat badu bai ele ona, bai laguntza,  
Dauzkanak oro zuzenkienik badabilta.

Ezta sekulan lerratu eta eroriko  
Gizon zuzena aipatua da sekulako.  
Ez berri beltzen beldurrik nehoiz pizten hari;  
Haren bihotza osoki dago Jainkoari.

Bihotza dauka bakean eta beldur gabe,  
Bere etsaiak ahalgetuak ikus arte.  
Behartsuentzat badu laguntza, badu argi;  
Kopeta gora agertuko da lorioski.

127.\* *Leloa:* *Dohatsu bai zu Jaunaren beldur bazaudena.*

Dohatsu bai zu Jaunaren beldur bazaudena,  
Haren bidetan zabiltzana!  
Zure eskuen lanetik duzu jan edana,  
Eskutan duzu zoriona!

Zure andrea mahats-ondo bat bezain jori,  
Etxe xokoa bozten ari.  
Zure semeak oliba-ondo gotor batzu,  
Mahainean so dagozkitzu.

Hara nolako zorionean dabilana  
Jaunaren beldur den gizona.  
Jainkoa lagun, bizi zareno izan urus,  
Jerusaleme azkar ikus.

144. *Leloa :* *Mundu guziko guzientzat da ona Jauna !*

Eztia eta guziz ona da gure Jauna:  
Urrikaltsua eta bihotzik nasaiena.  
Mundu guziko guzientzat da ona Jauna:  
Egin dituen ororentzat du bihotz ona.

Zuhauk eginek, Jauna, goraiपा zaitzatela:  
Zure gizonak eskerrak zuri, zor bezala.  
Guzi guzien begiak daude, Jauna, zuri,  
Eta heieri behar orduan zuk janari.

Zuzen da Jauna bere bidetan, beti zuzen,  
Egin lanetan zoin dena bihotz den agertzen.  
Hurbil da Jauna, hari otoizka daudeneri,  
Hari otoizka, bihotza zintzo eta garbi.

148. *Leloa :* *Aipa guziek Jaun izena !*

Aipa Jainkoa zeruetan,  
Aipa zazue gain gainetan.  
Aipa zazue aingeruek,  
Aipa zazue goi-indarrek.

Aipa iguzki ilargiek,  
Aipa izarren so dirdirek.  
Aipa zeruko zeru gainek,  
Aipa gaineko hedoi-urek.

Mendi guziek eta gainek,  
 Fruitu zuhaitzek eta denek.  
 Bas-abereek, aziendek,  
 Sugeek eta hegaztinek.

Lurreko jaunak eta jendek,  
 Buruzagiek, zuzentzailek.  
 Bai gizon gaztek, bai neskatxek,  
 Xaharrek eta haur guziek.

Aipa guziek Jaun izena,  
 Hura da hura den gorena.  
 Nork aski aipa Jaun izena,  
 Zeru-lurreri Nausi dena

### EBANJELIO AITZINEKO BERTSETAK

- 1 Maitatzen duena Jainkoarenganik sortua da  
 eta Jainkoa ezagutzen du.
- 2 Jainkoa maitasuna da : Jainkoak hola maitatu baigaitu,  
 guk ere elkar maitatu behar dugu.
- 3 Elkar maitatzen badugu, Jainkoa gure baitan dago,  
 eta haren maitasuna bere beterat heldua da gure baitan.
- 4 Maitasunean dagona, Jainkoaren baitan dago,  
 eta Jainkoa haren baitan.

( *Joaniren lehen epixtolatik 4.kapituluan* )

## EBANJELIOAK

- 1      **Jesu Kristoren Ebanjelioa jondoni Matiuren liburutik** 5,1-12a
- 1      Jendaldea ikustean, Jesus mendirat igan zen.  
 Jarri zelarik, dizipuluak hurbildu zitzaizkion.
- 2      Orduan, ahoa idekirik, irakasten hasi zitzaioten:
- 3      “ Dohatsuak bihotzez behartsuak direnak,  
 berena baitute zeruetako Erreinua.
- 4      Dohatsu eztiak  
 hitzeman lurraren jabe izanen baitira.
- 5      Dohatsuak nigarretan direnak,  
 kontsolatuak izanen baitira.
- 6      Dohatsuak zuzentasun gose eta egarri direnak,  
 asean ukanen baitute.
- 7      Dohatsuak urrikalkorak,  
 urrikalmendu ardietsiko baitute.
- 8      Dohatsuak bihotz garbiak,  
 Jainkoa ikusiko baitute.
- 9      Dohatsuak bakegileak,  
 Jainkoaren seme deituak izanen baitira.
- 10     Dohatsuak zuzentasunarengatik gaizki erabiliak,  
 heiena baita zeruetako Erreinua.
- 11     Dohatsuak zuek, laidoztatzen eta gaizki erabiltzen zaituztetenean,  
 zernahi gaixtakeria, gezurrez erranen dutenean zuetaz, neregatik.
- 12     Bozkaria eta loria zaitezte,  
 handia izanen baita zuen saria zeruetan.”
- 2      **Jesu Kristoren Ebanjelioa jondoni Matiuren liburutik** 5,13-16
- 13     Egun hartan, Jesusek erran zioten bere dizipulueri:  
 “ Zuek zirezte lurraren gatza.  
 Bainan gatza gezatzen bada, nola gazi berriz?  
 Deusetako ez da on,  
 kanporat bota eta jendeak zangopilatzeko baizik;
- 14     Zuek zirezte munduaren argia.

Ezin daiteke gorde mendi ganean den hiria.  
 15 Argi-untzia ere ez da pizten gaitzurupean ezartzeko,  
 bainan argimutilaren ganean,  
 eta etxean diren guziak argitzen ditu.  
 16 Halaber, zuen argiak argi beza jendeen aitzinean,  
 zuen egintza onak ikusiz  
 zeruko zuen Aita gorets dezaten.”

3 **Jesu Kristoren Ebanjelioa jondoni Matiuren liburutik** 7,21.24-27  
*Laburra:7,21.24-25*

Jesusek erran zioten dizipulueri:  
 21 “ Ez da aski neri “ Jauna, Jauna” erraitea  
 zeruetako Erreinuan sartzeko;  
 zeruko nere Aitaren nahia egin behar da.  
 24 Beraz, nere hitz hauek entzuten eta betetzen dituen,  
 etxea harrokaren ganean eraiki duen  
 gizon zentzudunaren idurikoa da.  
 25 Euria egin du, uholdeak etorri dira,  
 haizeak atera dira, eta etxea jo dute:  
 etxea ez da erori, harrokaren ganean jarria baitzen.  
 26 Nere hitz hauek entzuten dituen, bainan ez betetzen,  
 etxea legarraren ganean eraiki duen  
 gizon zentzugabearen idurikoa da.  
 27 Euria egin du, uholdeak etorri dira,  
 haizeak atera dira eta etxea jo dute:  
 etxea erori da, eta osoki hondatu.”

4 **Jesu Kristoren Ebanjelioa jondoni Matiuren liburutik** 19, 3-6

3 Farisau batzu Jesusi hurbildu zitzaizkion hutsean atxeman nahiz,  
 eta erran zioten:  
 “ Zilegi ote da senarrak emaztearen uztea edozein arrazoinengatik?  
 4 Jesusek ihardetsi :  
 “ Ez ote duzue irakurtu Liburu Sainduak diona ?  
 Kreatzaileak, hastetik, gizon eta emazte egin zituela,  
 5 eta erran ziotela: ‘ horra zergatik gizonak utziko ditu bere aitamak,  
 bere emazteari elkartuko zaio, eta biak bat izanen dira.’  
 6 Hola ez dira gehiago biga, bat baizik.  
 Beraz, Jainkoak bateratu duena, ez beza gizonak berex.”



5 **Jesu Kristoren Ebanjelioa jondoni Matiuren liburutik** 22, 35-40

35 Lege-gizon batek galdatu zion Jesusi, hutsean atzeman nahiz:  
 36 “ Irakasle jauna, zein da Legeko manamendu nagusia?”  
 37 Jesusek ihardetsi zion:  
 “ Maitatuko duzu Jauna, zure Jainkoa,  
 bihotz guziaz, arima guziaz eta adimendu guziaz.  
 38 Hori da manamendu nagusia eta lehena.  
 39 Eta bigarrena horren betekoa da:  
 Maitatuko duzu aldeko laguna, zure burua bezala.  
 40 Bi manamendu horietan dago Lege guzia,  
 bai eta profetak ere.”

6\* **Jesu Kristoren Ebanjelioa san Marken liburutik** 10,6-9

Jesusek dizipulueri erran zioten:  
 6 “ Munduaren hastetik, Jainkoak gizon eta emazte egin zituen.  
 7 Horrengatik, gizonak bere aitamak utziko ditu,  
 eta emaztearekin elkartuko da, eta biak bat izanen dira.  
 8 Hola ez dira gehiago biga, bat baizik.  
 9 Beraz, Jainkoak bateratu duena, ez beza gizakiak berex.”

7\* **Jesu Kristoren Ebanjelioa jondoni Joaniren liburutik** 2,1-11

1 Ezteiak izan ziren Galileako Kanan,  
 eta Jesusen ama han zen.  
 2 Jesus eta haren dizipuluak ere ezteietarat gonbidatuak ziren.  
 3 Eta arnoa eskastu baitzen, amak erran zion Jesusi:  
 “ Arnorik ez dute.”  
 4 Jesusek ihardetsi:  
 “ Emaztea, zer nahi duzu?  
 Nere orena ez da oraino etorria.”  
 5 Jesusen amak erran zioten zerbitzarieri:  
 “ Erranen dautzuena egizue.”  
 6 Baziren han harrizko sei untzi,  
 Juduek beren garbiketen egiteko erabili ohi zituztenak,  
 bakotxa ehun bat litrokoa.

74

7 Jesusek zerbitzariari erran zioten:  
“ Bete untziak urez.”  
Eta gaineraino bete zituzten.

8 Orduan erran zioten:  
“ Erauts, orai, eta ereman mahaizainari.”  
Eta heiek ereman zioten.

9 Mahaizainak ur arnotua jastatu zuen, nondik zen jakin gabe;  
zerbitzariak, bai, bazakiten, berek erautsia baitzuten ura.

10 Orduan, mahaizainak dei egiten dio ezkonberriari eta erraiten dio:  
“ Denek arno ona emaiten dute lehenik,  
eta, jendea edana delarik, txarragoa.  
Zuk, aldiz, orai arte atxiki duzu arno ona.”

11 Hau izan zen Jesusek egin zuen lehen ezaugarria.  
Galileako Kanan egin zuen.  
Hola agertu zuen bere aintza,  
eta dizipuluek haren baitan sinetsi zuten.

8 **Jesu Kristoren Ebanjelioa jondoni Joaniren liburutik** 15, 9-12

Mundu huntarik bere Aitaren ganat zoanean,  
Jesusek erran zioten bere dizipulueri:

9 “ Aitak ni maitatu nauen bezala, maitatu zaituztet nik ere.  
Zaudezte nere maitasunean.

10 Nere manamenduak betetzen baditutzue,  
nere maitasunean egonen zirezte,  
ni ere, Aitaren manamenduak bete ditudalakotz,  
haren maitasunean nagon bezala.

11 Hau erran dautzuet, nere bozkarioa zuen baitan izan dezazuen,  
eta zuen bozkarioa bete-betea izan dadin.

12 Hau da nere manamendua:  
elkar maita zazue, nik maitatu zaituztedan bezala.

9 **Jesu Kristoren Ebanjelioa jondoni Joaniren liburutik** 15, 12-16

Mundu huntarik bere Aitaren ganat zoanean,  
 Jesusek erran zioten bere dizipulueri:  
 12 Hau da nere manamendua:  
 elkar maita zazue, nik maitatu zaituztedan bezala.  
 13 Nehork ez du maitasun handiagorik  
 bere bizia adiskideentzat emaiten duenak baino.  
 14 Zuek nere adiskideak zirezte, nik manatua egiten baduzue.  
 15 Ez zaituztet gehiago zerbitzari deitzen,  
 zerbitzariak ez baitaki Nagusiak zer egiten duen.  
 Adiskide deitzen zaituztet,  
 nere Aitarenganik ikasi dutan guzia ezagutarazi baitautzuet.  
 16 Ez nauzue zuek ni hautatu,  
 nik zaituztet zuek hautatu eta ezarri :  
 joan zaitezten, eta fruitua, fruitu iraunkorra, eman dezazuen.  
 Orduan, nere izenean Aitari eskatuko duzuen guzia emanen dautzue.

10 **Jesu Kristoren Ebanjelioa jondoni Joaniren liburutik** 17, 20-26  
*Laburra : 17, 20-23*

Aitarenganat pasatzeko ordua etorri zitzaionean,  
 Jesusek, begiak zerurat altxaturik, hunela otoitz egin zuen:  
 20 “ Ez zaitut otoizten hemen diren hauen alde bakarrik,  
 bai eta hauen hitzaren bidez nere baitan sinetsiko dutenen alde ere.  
 21 Denak, bat izan daitezela,  
 Aita, zu nerekin, eta ni zurekin biak bat giren bezala.  
 Hauek ere bat izan daitezela gurekin,  
 munduak sinets dezan zuk igorri nauzula.  
 22 Eta nik, zuk eman dautazun aintza bera eman diotet,  
 bat izan daitezen, gu biak bat giren bezala:  
 23 ni hauekin bat,  
 eta zu nerekin bat.  
 Hauen batasuna osoa izan bedi:  
 hola munduak jakinen du zuk igorri nauzula,  
 eta ni maitatu nauzun bezala,  
 maitatu ditutzula hauek ere.

*Irakurgai laburra hemen gelditzen da.*

76

- 24 Aita, zuk eman dauzkidatzunak  
nahi dut ni naizen tokian nerekin izan daitezen,  
eta nere aintza ikus dezaten,  
mundua izan baino lehen maite izan nauzulakotz  
eman dautazun aintza.
- 25 Aita zuzena, munduak ez zaitu ezagutu,  
nik, aldiz, ezagutu zaitut,  
eta hauek jakin dute zuk igorri nauzula.
- 26 Zure izena ezagutarazi diotet,  
eta oraino ezagutaraziko ere,  
zuk nere alderat duzun maitasuna hauen baitan izan dadin,  
eta nihaur ere hauen baitan izan nadin.

## FEDEAREN AITORMENA

Ezkontza mezan balinbada, eta mezarik gabe ere, nahi bada Fedearen aitormena egin daiteke, homiliaren ondotik.

Hiru molde hautarik bat hauta.

### 1

Bi ezkongaiak bataiatuak badira, bataioaren oroitzapena egiteko, Bazko gaueko Fede aitormena har daiteke. Apezak edo diakreak galdeak egiten ditu, eta denek ihardesten diote.

Uko egiten duzue Satani,  
bekatuari eta bekaturako bide guziera ?

Denek : Uko egiten dugu.

Sinesten duzue Jainko Aita  
botere guzia duena baitan,  
zeruaren eta lurraren Kreatzailean ?

**Sinesten dugu .**

Sinesten duzue Jesu Kristo, haren Seme bakar,  
gure Jauna baitan, Maria Birjina ganik sortua,  
pairatu eta ehortzia izan dena,  
hiletarik piztua, Aitaren eskuinean jarria ?

**Sinesten dugu .**

Sinesten duzue Izpiritu Saindua baitan,  
Eliza katoliko sainduan, sainduen partaliertasunean,  
bekatuen barkamenduan, haragiaren piztean,  
betiereko bizian ?

**Sinesten dugu .**

Sinesten dut Jaungoiko bat bakarra,  
Aita guziz ahaltso, zeru lurren Egile, ageri diren eta ez diren guziena.  
Sinesten dut Jaun bat bakarra, Jesu Kristo, Jainkoaren Seme bakar,  
mende guziak baino lehen Aita ganik sortua.

Jainkoaganik Jainko, argitik argi,  
egiazko Jainkoaganik, egiazko Jainko.

Sortua, ez egina, Aitaren izaite berekoa,  
Haren bidez dira eginak gauza guziak.  
Gu gizonen gatik eta gu salbatzeko, jautsi zen zerutik.

Eta Izpiritu Sainduaren egitez, Maria Birjinaganik gorputz harturik,  
gizon egin zen.

Pontzio Pilatoren menpean gugatik gurutzeratua izan zen,  
oinazetan hila eta hobiratua.

Hirugarren egunean piztu zen, Liburu Sainduak erran bezala,  
zerurat igan eta Aitaren eskuin aldean jarririk dago.  
Aintzaz etorriko da berriz, biziak eta hilak jujatzerat,  
eta haren erregetzak ez du azkenik izanen.

Sinesten dut Izpiritu Saindua, Jaun eta bizi emaile,  
Aitaganik, eta Semeaganik dena.  
Aitarekin eta Semearekin batean  
agur eta goresmen berbera hartzen duena,  
eta Profeten ahoz hitz egin zuena.  
Sinesten dut Eliza : bat, saildu, katoliko eta Apostoluena.  
Aitortzen dut bataio bakarra, bekatuak barkatzeko.

Igurikatzen dut hilen piztea, eta datorren munduko bizia. *Amen.*

## 3

Sinesten dut, Jainko Aita botere guzia duena baitan,  
zeruaren eta lurraren kreatzailean.  
Eta Jesu Kristo haren seme bakar, gure Jauna baitan  
zoin kontzebitu baitzen Izpiritu Sainduaren bertutez,  
sortu zen Maria Birjina ganik,  
pairatu zuen Pontzio Pilatusen manuaren azpian,  
kurutzefikatu zuten,  
hil zen eta ehortzi zuten ; jautsi zen ifernuetarat,  
hirugarren egunean jeiki zen bizirik hilen artetik,  
igan zen zeruetarat,  
jarria dago Jainko Aita botere guzia duenaren eskuinean,  
handik etorriko da bizien eta hilen jujatzerat.  
Sinesten dut Izpiritu Saindua baitan,  
Eliza katoliko, sainduan,  
Sainduen partaliertasunean,  
bekatuen barkamenduan, haragiaren piztean,  
beti iraunen duen bizitzean. *Amen.*

*Ohar bat : Fedearen aitormen hori apezak egiten du edo berak eta ezkongaiak bakarrik, edo batzar guziarekin, edo talde ttipi batekin, hala nola lekukoak eta ezkongaien lagunak, edo parropiakoak eta ezkontza prestatzen duten taldeak.*

## **EZKONBERRIEN BENEDIKATZEA**

### **LEHEN MOLDEA**

*Ikus 18. orrialdean. Bereziki, ezkonberriek kominiatzen dutelarik erabiltzekoa da.*

### **BIGARREN MOLDEA**

Otoitzerako deia, hitz hauekin, edo beste batzuekin.

Guziek batean otoitz egin dezagun, Jaunari eskatuz bere benedizioea ezkonberri hauien gainera ixur dezan, bere bihotz onean bere grazia eman diezoten ezkontzako sakramenduaren bidez bat egin dituenari.

Ixtant bat otoitz egin ixilik. Gero, apezak edo diakreak eskuak ezkonberrien gainera hedatuz, dio:

Jainko ahalguziduna, zuk dituzu diren guziak zure indarrez ezdeusetarik egin eta hastapenetik mundua haxean ezarri duzu; gizona eta emaztea zure iduriko eginez, gizonari ezin berexizko laguntzat emaztea moldatu diozu, gehiago ez ditezen biga izan, bat baizik ez, hola erakusteko zuk bat egin duzuna ez dela behinere zilegi berextea.

Jainkoa, zuk duzu hain misterio handiz ezkon-lokarria saildutu, hartan adiaraziz Kristoren eta Elizaren arteko batasuna.

Jainkoa, zuk dituzu gizona eta emaztea bat egin, zuk hastapenetik sortu batasun horri, Zuharek diozu emaiten zure benedizioea, ez bekatu orisinalaren zigorrak, ez uholde handiaren hondamendiak kendu ez dion benedizioea.

Beha zozute begi onez zure zerbitzari hauieri : ezkontzako lokarriak bat egin ditu, eta zure benedizioearen laguntza eskatzen dautzute. Igor-azu hauien gainera Izpiritu Sainduaren grazia : hauien bihotzetara ixuri duzun maitasunari esker ezkon-batasunari leial egon ditezela.



Zure alaba hau izan bedi maitasunezko eta bakezko graziaz betea;  
 har ditzala Liburu Sainduetan goraiatuak diren emazteen bideak.  
 Hunen baitan fida bedi senarraren bihotza :  
 ezagutuz bere beteko laguna duela,  
 eta graziazko bizitzean kidekoa,  
 errespeta dezala eta maita beti,  
 Kristok bere Eliza maitatu duen bezala.

Eta orai, Jauna, eskatzen dautzugu :  
 emozute sinestean sendo irautea,  
 eta zure manamenduen maitatzea;  
 elkarri leial egon ditezela,  
 eta beren bizitze zuzenarengatik ezagutuak izan.  
 Ebanjelioaren indarrak bete ditzala,  
 Jesu Kristoren lekuko zintzo izan ditezten guzien aitzinean.  
 [ Seme-alabak ukan ditzatela,  
 buraso on eta zintzo izan ditezela,  
 eta ikus ditzatela biek beren haurren haurrak. ]  
 Eta gero, nahi bezalako xahartzea ukanik,  
 sailduen bizirat eta betiereko zerurat hel ditezela.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.  
 Amen .

### ***HIRUGARREN MOLDEA***

Apezak edo diakreak, eskuak juntaturik, otoitzerako deia egiten du:

Eta orai, gure otoitzez eska dezagun  
 Jainkoaren benedizioa ezkonberri hauientzat,  
 ezkontzaren grazia egin diotelarik,  
 amultsuki bere laguntza eman diezoten.

Ixtant bat otoitz egin ixilik. Gero eskuak haien gainera hedatuz, dio:

Aita guziz saildua, mundu guziaren Egilea,  
 gizona eta emaztea zure idurira egin dituzu  
 eta heien batasuna zure benedizioez aberastu.  
 I... eta I...-rentzat apalik otoizten zaitugu  
 ezkontzako sakramenduaz bat egin duten egun huntan:  
 haien gainera jauts bedi zure benedizioe nasaia.

Izpiritu Sainduaren indarrak zure amodioaz sutan eman ditzala;  
ezkontzan elkarri emanik zoriona kausi dezatela,  
eta beren bizia zuzenki gida.

[ Haurrak jin ditezela haiuen familiaren edertzera,  
eta Elizaren aberastera.]

Poz-egunetan gorets zaitzatela, eta atsegabeetan bila;  
lan orduan, jakin bezate zu hor zaituztela lagun  
eta behar orduan sendi zu hor zirela heien arintzeko.

Parte har dezatela zure Elizaren otoitzean  
eta zuri aitormen eta lekukotasun eman munduan.  
Eta xahartze zoriontsu batera heldurik,  
joan ditezela zeruko Erreinurat,  
hemen dituzten adiskide guziekin.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez  
Amen

#### ***LAUGARREN MOLDEA***

Ezkonberriek kominiatzen dutelarik bakarrik erabil daiteke. Ikus 19. orrialdea.

#### ***BOSGARREN MOLDEA***

Molde hau erabil daiteke, katoliko bat katoliko ez den bataiatu batekin ezkontzen delarik.  
Apezak edo diakreak otoitzerako deia egiten du, eskuak juntaturik, hemen diren hitzekin, edo  
beste batzuekin.

Eta orai, gure otoitzez eska dezagun  
Jainkoaren benedizioa ezkonberri hauientzat,  
ezkontzaren grazia egin diotelarik,  
amultsuki bere laguntza eman diezoten.

Ixtant bat otoitz egin ixilik. Gero eskuak haiuen gainera hedatuz, dio:

Jauna, gure Jainkoa,  
zeru-lurren eta bizidun guzien Egilea,  
gizona eta emaztea zure idurira egin dituzu.  
Zure maitasun egintzetan parte izan dezaten,  
maitatzeko ahala duen bihotza eman diozute  
Eta egun, eliza huntan, I..k eta I..k  
beren biziak elkarretaratzea nahi izan duzu.

Nahi duzu ere, beren familia eraiki dezaten,  
 egunetik egunera elkar maiteago izaitera lehia ditezen,  
 Kristo Jaunaren etsenpluari jarraikiz,  
 Gurutzean hiltzeraino maitatu baigaitu.  
 Benedika, zaint eta indarrez bete zazu  
 ezkonberri hauien amodioa.  
 Amodio horri esker elkarri leial egon ditezela,  
 zoriotsu izan, eta Kristorenganik ikas dezatela  
 nork bere burua maiteari emaitak nolako bozkarioa sortzen duen.  
 Jauna, hauien maitasuna zurearen idurikoa izanik,  
 biziaren iturri egin dadila;  
 beren bihotza eta etxea besteentzat zabalik atxik ditzatela.  
 Beren amodioan finkatuz, Izpiritu Sainduaren indarrarekin  
 lehia ditezela mundu xuxenago eta goxoago baten eraikitzera,  
 eta hola beren gizon eta giristino eginbideen leialki betetzera.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Amen

#### **SEIGARREN MOLDEA**

Apezak edo diakreak, eskuak juntaturik, otoitzerako deia egiten du hitz hauiekin, edo beste batzuekin.

Haurride maiteak, benedika dezagun Jainkoa,  
 eta eska diezogun ezkonberri hauk benedika ditzan  
 beren konfiantza haren baitan ezartzen dutelarik.

*Denek : Eskerrak zuri, Jauna !*

Gero apezak edo diakreak, eskuak ezkonberrien gainera hedaturik, erraiten du:

Benedikatua zu, Jainko gure Aita,  
 amodio guzien iturria den zure maitasunagatik.  
 Nahi izan duzu gizonaren eta emaztearen amodioa  
 zure herriarekin egin zinuen batasunaren ezaugarri izan zadin.  
 Bai, benedikatua zu !

*Eskerrak zuri, Jauna !*

Benedikatua zu, gure Salbatzailearen Aita,  
 zure Semearen Bazkoan finkatu duzun Batasun berriarengatik.  
 Nahi duzu gaur, I... eta I...-ren ezkon-batasunak  
 Kristoren eta Elizaren batasuna adiaraz dezan.  
 Bai, benedikatua zu !

*Eskerrak zuri, Jauna !*

Benedikatua zu, Jauna : zure Izpiritua igortzen daukuzu,  
 zure haurrak zure Semearen egitekoan partalier izan ditezen.  
 Zuk nahi duzu ezkonberri hauk  
 bat bestearentzat zure maitasun samurraren seinale izanez,  
 gorputz bat eta izpiritu bat egin ditezen .  
 Bai, benedikatua zu !

*Eskerrak zuri, Jauna !*

Batasunaren Jainkoa, otoitz egiten dautzugu ezkonberri hauentzat,  
 hauen batasuna kontsekratu duzun egun huntan:  
 igor-azu hauen gainera zure Izpiritua,  
 eta bete-zkitzu zure grazia nasaiez.  
 Zorion urte luzeak elkarrekin goza ditzatela,  
 elkarri sustengu eman ez ezinbertzean.  
 Hauen familia handi dadila elkarren errespetuan,  
 elkar entzunez eta barkatuz,  
 zuzentasunaren eta behartsuen alderako axola obratuz.  
 [ Familia uros baten zoriona goza dezatela,  
 eta beren haurreri Ebanjelioaren arabera bizitzeko gustua eman.]  
 Eta, ezkontzaren graziak saildutu bizitzea bururatuko zaielarik,  
 zorionaren betera hel ditezela zeruko sailduekin batean,  
 zure Erreinuan.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.  
 Amen .

## FEDEDUNEN OTOITZA

### 1

- 1 I... eta I..., Kristoren baitan bataiatuak  
eta ezkontzaren lokarriaz sainduki bat eginak,  
elkarrekin bizitzeaz eta salbatuak izaiteaz uros izan ditezen,  
egin dezagun otoitz.
- 2 Galileako Kanan ezteiak saindutu zituen Jesus Jaunak  
hauien ezkontza konsekra dezan, egin dezagun otoitz.
- 3 Zinezko eta emankorra izan dadin hauien amodioa,  
elkarren laguntzan eta bakean,  
eta kristau izen ederraren lekuko zintzo izan ditezen, e. d. o.
- 4 Kristau herriaren esperantza beti handituz joan dadin,  
eta Jainkoaren laguntza ukan dezaten heraturan direnek, e.d. o.
- 5 Izpiritu Sainduak, hemen diren ezkondu guzien baitan  
ezkontzako sakramenduaren grazia erreberri dezan, e. d. o.

### 2

- 1 Jauna baitan bat egin duten I... eta I...-rentzat  
bai eta ezkondu giristinoentzat,  
Jainko leialari bere grazia nasaia eska diezogun.
- 2 Beren buraso eginbidea eta haurren altxatzea  
zorionean bete dezaten, Jainko Hitzaren zuhurtzia eska dezagun.
- 3 Beren bihotzean edo gorputzean sofritzen duten guzientzat,  
berexiak diren familientzat, gaizki maitatuak diren haurrentzat,  
gure Salbatzailearen urrikalmenduari dei egin diezogun.
- 4 Zuzentasuna eta bakea munduan nagusi ditezen,  
herra eta aharrak itzal ditezen,  
batasun guzien Aitaren bihotz onari dei egin diezogun.
- 5 Kristo Jaunak bere emaztea bezala maite duen Elizarentzat,  
gizon eta emazte guziak betiereko ezteietarat deitu behar baititu,  
Izpirituaren dohainak eta graziak emaiten dituenari egin diezogun  
otoitz.
- 6 Jaunaren baitan lokartu diren gure haurrideentzat,  
eta hil guzientzat  
biziaren Jauna, eta gizaki guzien Salbatzailea denari,  
egin diezogun otoitz.

- 1 “ Ez dira gehiago biga, bainan bat.  
Jainkoak bateratu duena, ez beza gizakiak berex ”, dio Jaunak.  
I... eta I...-rentzat egin diezogun otoitz,  
elkarren amodioan eta leialtasunean begira ditzan.
- 2 “ Zatozte nere ganat, nekatuak eta zamapean zirezten guziak,  
eta nik atsedena emanen dautzuet ”, dio Jaunak.  
Gure familia guzientzat egin diezogun otoitz :  
beren hersturetan lagunt ditzan, eta heien kuraia indarrez bete.
- 3 “ Nere haurrideak diren ttipien hauetarik bati egin diozuen aldi oroz,  
neri egin dautazue ”, dio Jaunak.  
Egin diezogun otoitz sofritzen duten guzientzat :  
heien laguntzeko ahala eman diezagun.
- 4 “ Nitán sinesten duena, hilik ere, biziko da ”, dio Jaunak.  
Egin diezogun otoitz gure haurride hilentzat:  
eman diezotela, bere ondoan, atsedena eta bakea.

### ***EZKONBERRIERI ESKAINIA DEN EZKONTZAREN OROITZAPENA***

Azken benedizonearen ondotik, konbeni balinbada, apezak edo diakreak ezkonberrieri , kristau elkartearen partez, zerbait eskain diezaieke. Zer ? Edo Biblia bat, edo gurutzefika bat, edo ikono bat, edo arrosario bat, elizkizunaren oroitzapen izanen dena etxean. Oroitzapen hori benedikadaiteke hemen diren otoitzak baliatuz.

#### ***BIBLIA***

Jainko gure Aita, maitasun guzien iturri zirena,  
gaur ospatu dugun ezkonberrien batasuna atsegin duzu.  
Biblia hau I... eta I...-rekin izan dadila , hauen familia berrian  
beren ezkontzaren oroitzapen,  
eta zure maitasunaren eta leialtasunaren ezaugarri.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Amen

*Edo*

Fedean gure arbaso direnekin Batasun egin zinuen Jainko Jauna,  
sakramendu hunen bidez I... eta I...-ren batasuna finkatu duzu.  
Beti hitzekoa baitzira, zuri otoitzez gaude:  
Biblia hau izan bedi hauen amodioa haziko duen liburua,  
eta engaiamendua gidatuko duen argia.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Amen

#### ***GURUTZEFIKA***

Jainko Jauna, zurekilako batasuna finkatu duzu  
zure Semeak bere buruaz egin duen emaitza gorenean,  
eta nahi duzu I... eta I...-ren amodioa lora dadin  
elkarri egiten duten emaitzaren betean.  
Jesusen gurutzea zure maitasun mugagabearen lekuko dugu:  
gurutze huni begiratzeak lagunt ditzala  
beren amodioaren bururaino joaiten.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Amen

***IKONOA***

Jainko Jauna zure izaitearen aberastasun sakona agertzen daukuzu  
 I... eta I... bat egiten dituen amodio kartsuan,  
 eta hauen ezkont bizia beti gehiago  
 zure maitasunaren iduria izaitea nahi duzu..  
 Ikono itxura hau izan bedi horien etxean  
 misterio handi hunen ezaugarri,  
 eta zuk maitatzen duzun bezala maitatzerako deia.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.  
 Amen.

***ARROSARIOA***

Jainko betierekoa, Aita guziz ona,  
 maite izan gaituzun maitasun handiagatik,  
 zure Semeak Maria Birjinaganik gorputz bat har zezan  
 nahi izan duzu.  
 Emozute I... eta I...-ri Jesusi beha egoitea  
 bozkario, argi, dolore eta loriazko misterioetan,  
 Maria, haren amarekin batean.  
 Zurekin Jainko eta Errege bizi baita, gizaldi eta gizaldietan.  
 Amen.



## EZKONGAIEN BENEDIKATZEA

### Ohar batzu

Aita-ama familiako giristinoen eginbidea da, beren haurrak altxaturik, heien laguntzea ahalik eta hobekien ezkontzari buruz prestatzera. Ezkont-hitza eman nahi duten bi gazteentzat apaila daiteke beraz otoitzaldi bat, heientzat Jainkoaren laguntza galdatzeko, behar bezala iragan dezaten ezkontza aitzineko denbora hori.

Otoitzaldi hori etxean egiten da, bi familiak bilduak direlarik. Aitak, edo amak, gida dezake otoitzaldi hori. Apez bat edo diakre bat han balinbada, hari doako otoitzaren buru izatea, kasu eginez haatik, nehork ez dezan hori ezkontza dela uste izan.

Ezkontzari buruz prestatzen ari diren ezkongaien bilkura batean egiten bada, ez dadila mezarekin eta bereziki igandeko mezarekin lotua izan. Baitezpada mezan eman behar balitz ( ez igandekoan), benedikapen-otoitza meza bururatzean erran behar da, beste guziak benedikatu aitzin.

### **OSPAKIZUNAREN HASTEAK**

Gurutzearen seinalearen ondotik, buru denak familia agurtzen du.

*Apezak edo diakreak erraiten du:*

Jesu Kristo gure Jaunak,

gu maitatu gaituenak eta guretzat bere burua eman duenak  
eman diezazuela grazia eta bake.

***Denek : Benedikatua Jaungoikoa, orai eta beti.***

*Buru denak, ez bada apezak, erraiten du:*

Gorets dezagun Jesu Kristo, gure Jauna:

maitatu gaitu eta guretzat eman du bere burua.

Goresmen zuri, Jauna!

***Denek : Goresmen zuri, Jauna !***

Gero, buru denak hitz hauk, edo gisa berekoak, erraiten ditu, denen bihotzen prestatzeko:

Badakigu denek beti Jainkoaren graziaren beharra dugula. Baina badira orduak giristinoek graziaren beharra gehiago senditzen baitute, bereziki familia berri baten finkatzera prestatzen ari direlarik.

I...eta I...-ren baitan handi ditezen elkarrenganako errespetua eta amodioa, eta ezkontzari buruz presta ditezen elkar lagunduz eta elkarrekin otoitz eginez, eska dezagun Jainkoaren benedizioa.

**JAINKOAREN HITZA**

Buru denak, edo beste norbaitek, Bibliako lerro batzu irakurtzen ditu

**Haurrideak, entzun dezagun Jaunaren hitza  
jondoni Joaniren Ebanjeliotik**

15,9-12

- Mundu huntarik bere Aitaren ganat zoanean,  
Jesusek erran zioten bere dizipulueri:
- 9 “ Aitak ni maitatu nauen bezala, maitatu zaituztet nik ere.  
Zaudezte nere maitasunean.
- 10 Nere manamenduak betetzen badituzue,  
nere maitasunean egonen zirezte,  
ni ere, Aitaren manamenduak bete ditudalakotz,  
haren maitasunean nagon bezala.
- 11 Hau erran dautzuet, nere bozkarioa zuen baitan izan dezazuen,  
eta zuen bozkarioa bete-betea izan dadin.
- 12 Hau da nere manamendua:  
elkar maita zazue, nik maitatu zaituztedan bezala.

**Edo**

**Haurrideak, entzun dezagun  
jondoni Paulok Korintiarreri diotena**

1a : 13,4-13

- 4 Maitasuna jasankorra da eta laguntza emailea;  
Maitasuna ez da bekaiztia, ez da ahoberoa, ez urguluntzia.
- 5 Ez du behar ez denik egiten, ez du berea bilatzen,  
ez da haserretzen, ez du herrarik atxikitzen.
- 6 Zuzengabekeriak ez du bozkariatzen,  
bainan egian du kausitzen bere poza.
- 7 Dena barkatzen du, dena sinesten, dena igurikatzen, dena jasaiten.
- 8 Maitasuna ez da sekulan itzaltzen.  
Profeta dohaina desagertuko da,  
hizkuntza arrotzez mintzatzea geldituko,  
jakitatea itzaliko.
- 9 Erdizkakoa baita gure ezagutza, erdizkakoa gure profezia.
- 10 Bainan betearen betea etorriko denean,  
erdizkakoa itzaliko da.
- 11 Haurra nintzenean, haur eleak nituen,  
haur asmoak, haur arrazoinak.  
Gizondu naizenean, haurkeriak utzi ditut.

- 12 Orai dena hits ikusten dugu, mirailan bezala;  
 egun hartan, aurpegiz aurpegi.  
 Orai erdizka ezagutzen dut;  
 orduan, oso osoan ezagutuko dut,  
 Jainkoak ni ezagutzen nauen bezala.
- 13 Hiru gauza ditugu oraidanik, iraunkor direnak:  
 fedea, esperantza eta karitatea;  
 bainan hiruetan handiena karitatea da.

**Edo****Ose profetaren liburutik**

2, 21-25

- Hunela mintzo da Jauna:
- 21 Nere emazte eginen zaitut, betiko.  
 Nere emazte eginen justiziaz eta zuzenbidez,  
 maitasunez eta samurtasunez;
- 22 leialtasunez eginen zaitut nere emazte,  
 eta zuk ezagutuko duzu Jauna.
- 23 Egun hartan, dio Jaunak, ihardetsiko dut,  
 zeruari euria emanen diot, eta zeruak lurrari ura emanen dio.
- 24 Lurrak, ogi, arno berri, olio goxo emanen du,  
 eta hauek "Izreelen" beharrari ihardetsiko diote.
- 25 Nere herria lurraldean landatuko dut,  
 " Ez maitea" maitatuko dut  
 eta " Ez nere herria"-ri , " Zu nere herri " erranen diot,  
 eta harek " Ene Jainko" ihardetsiko daut.

**Edo****Jondoni Paulok Filipeko giristinoeri**

2,1-5

- Haurrideak,
- 1 egia bada Kristo baitan elkar soleitzen duzuela,  
 maitasunean sustatzen,  
 egia bada Izpiritua baitan bat eginik bizi zireztela,  
 bihozbera eta urrikaltsu zireztela,
- 2 bete nezazue bozkarioz, denak gogo eta sendimendu bereko izanez,  
 elkar maitatuz eta ongi hartuz.
- 3 Ez egin deus norgehiagokeriaz edo harrokeriaz,  
 bainan apaltasunez, besteak norbera baino hobeak direla pentsatuz.
- 4 Nehork ez bezo bereari bakarrik beha, bainan besteenari ere.
- 5 Izan itzazue zuen artean Kristo Jesusi dagozkion sendimenduak.

Salmo bat erran edo kanta daiteke, edo ere beste kantu egoki bat.

144. *Leloa : Mundu guziko guzientzat da ona Jauna !*

Eztia eta guziz ona da gure Jauna:  
Urrikaltsua eta bihotzik nasaiena.  
Mundu guziko guzientzat da ona Jauna:  
Egin dituen ororentzat du bihotz ona.

Zuhauk eginek, Jauna, gorai pa zaitzatela:  
Zure gizonak eskerrak zuri, zor bezala.  
Guzi guzien begiak daude, Jauna, zuri,  
Eta heieri behar orduan zuk janari.

Zuzen da Jauna bere bidetan, beti zuzen,  
Egin lanetan zoin dena-bihotz den agertzen.  
Hurbil da Jauna, hari otoizka daudeneri,  
Hari otoizka, bihotza zintzo eta garbi.

Otoitzaren buru denak hitz batzu erran ditzazke, irakurgaiak argitasun batzu emanez, han diren guzietan fedearen bidez konpreni dezaten zer den ospakizun hori, eta argi ikus ez dela ezkontza.

***FEDEDUNEN OTOITZA***

Hemen emanak diren xedeetarik hauta, edo beste batzu asma, beharren arabera.

Jainko gure Jauna, diren guziak zuk eginak dira,  
eta guziak onak dira. Benedikatua zu, Jauna !

*Denek:* Benedikatua zu, Jauna !

Gizakia zure idurira egin duzu, gizon eta emazte egin zinituen.  
Benedikatua zu, Jauna !

Bat bestearentzat egin dituzu, eta kreazionea heien esku utzi.  
Benedikatua zu, Jauna !

Gorets ditzagun Aita, Semea eta Izpiritu Saindua  
orai eta beti. Benedikatua zu, Jauna !

Jauna, gure Jainkoa, orai I... eta ...-rentzat otoitz egiten dautzugu.

*Denek:* Entzun gaitzazu, Jauna !

Izan zaite hauen bide-lagun, ezkontzari buruz doazilarik.  
Entzun gaitzazu, Jauna !

Emozute elkar errespetuz hartzea, eta zinez ezagutzea.

Egizu hauen amodioa ederrago izan dadin,  
besteen adiskidetasunari esker.

Egizu konfiantza handi dadin  
ezkontzari buruz prestatzen direnen baitan.

### *Edo*

Jainko gure Aitak hainbeste maite izan gaitu  
bere haur egiteraino Kristoren baitan  
eta bere maitasunaren lekuko munduan.

Konfiantza oso batean egin diezogun otoitz.

*Denek : Jauna, orroit zaite zoin gaituzun maite.*

Kristo baitan elkarrentzat duten maitasunean  
ezagutuak izan ditezen zure haurrak, nahi izan duzu.

Zure eta lagun hurkoaren alderako amodioaren manamendua  
zorionerako bide egin duzu.

Gizona eta emaztea amodio berean bat egin dituzu,  
haurren ukaiteko bozkarioa heieri emaiteko.

Kristok bere Elizarekin bat egiten duen misterioaren bidez  
ezkontzaren sakramenduko maitasunaren ikasbidea eman duzu.

I... eta I... bihotz bat eta arima bat izaitera deitu dituzu,  
familia baten eraikitzeke amodiozko batasun betean.

Otoitzaren bururapen gisa :

Maitasun ziren Jainkoa, onar zazu gure otoitza  
familia berri baten eraikitzeke prestatzen diren

I... eta I...-rekin egiten dautzuguna.

Emozute zure Izpituaren betea.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Amen .

Gero, ezkongaiak elkarri eman dezekete eman duten hitzaren seinale bat, tokian tokiko ohiduren araberakoa, hala nola sinadura bat, edo eraztun bat, eta abar.

Eta erran daiteke:

Begira zazue artoski elkarri egin duzuen oparia  
( emana izan den eraztun hori )  
ordua etorriko denean bete dezazuen  
opari horrek seinalatzen duen agintza.  
Amen .

### ***BENEDIKAPEN OTOITZA***

Apezak, edo diakreak, eskuak hedaturik erraiten du:

Goresten zaitugu, Jauna :  
Zure maitasun samurrean deitzen eta prestatzen dituzu  
I... eta I... zure haurrak elkar maitatzera.  
Zure benedizionearen bidez + finkazkitzu , otoi, hauen bihotzak,  
beren hitza begiratzuz eta zuri orotan atsegin izaitera lehiatuz,  
ezkontzako sakramendurat heltzeko zoriona ukan dezaten.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.  
Amen.

***Edo***

Jainko gure Aita, zuretzat egin gaituzu,  
eta zurekin ez dugu deuseren eskasik.  
Benedika zatzu, otoi, + I... eta I... zuri osoki fidaturik  
ezkont hitza eman duten egun huntan.  
Begira zatzu elkarrekin hartu duten bide hortan,  
ezkontzari buruz prestatzen diren garai hau  
elkarren amodioan eta errespetuan iragan dezaten.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.  
Amen

***Edo***

Jainko gure Jauna, maitasunaren iturria zirena,  
zure maitasun artatsuari esker elkar kausitu dute I...eta I...-k:  
egun zure grazia eskatzen dautzute  
beren burua ezkontzara prestatzeko:  
zure benedizioneak + sustaturik,  
aitzina joan ditezela elkarren estimuan  
eta zinezko amodioan elkar maita dezatela.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.  
Amen .

Laiko batek, otoitzaren buru delarik, benedizione keinua (+) egin gabe, erran dezake :

Goresten zaitugu, Jauna :

Zure maitasun samurrean deitzen eta prestatzen dituzu

I... eta I... zure haurrak elkar maitatzera.

Zure benedizionearen bidez finkazkitzu , otoi, hauen bihotzak, beren hitza begiratzuz eta zuri orotan atsegin izaitera lehiatuz, ezkontzako sakramendurat heltzeko zoriona ukan dezaten.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Amen.

*Edo*

Jainko gure Aita, zuretzat egin gaituzu,

eta zurekin ez dugu deuseren eskasik.

Benedika zatzu, otoi, I... eta I... zuri osoki fidaturik ezkont hitza eman duten egun huntan.

Begira zatzu elkarrekin hartu duten bide hortan,

ezkontzari buruz prestatzen ari diren garai hau elkarren amodioan eta errespetuan iragan dezaten.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Amen

### **BURURATZEA**

Otoitzaldiaren buru denak erraiten du:

Maitasun eta bake den Jainkoa zuekin izan bedi,

gida bitza zuen urratsak,

eta finka zuen bihotzak bere maitasunean.

Amen.

*Edo*

Giza adimendu guziak baino gorago den Jainkoaren bakeak

begira ditzala zuen bihotzak eta gogoak

Jesu Kristo gure Jaunaren baitan.

Amen.

Apezak edo diakreak, aldiz, erraiten du:

Eta hemen zirezten guziak,

benedika zaitzatela Jainko ahalguzidunak

Aitak eta Semeak eta Izpiritu Sainduak.

Amen.

## EZKONDUEN BENEDIZIONEA

### EZKONT URTEBURUETAKO MEZAN

Ezkontzaren 25, 50, eta 60-garren urteburuetan, on da meza berezi baten zelebratzea. Ikus aldareko liburuan 680 eta 681 orrialdeetan diren otoitzak.

Meza hortako Hitzaren Liturgian har daitezke liburu huntan 53-76 orrialdeetan direnetarik hautatuz. Edo ere Eskerren bihurtzeko mezetako irakurgaietarik. Ikus *Meza berezietako irakurgaiak* liburuan 324- 330 orrialdeetan.

Ebanjelio ondoan, apezak homilia egiten du : irakurgaietarik abiatuz, kristau biziaren misterioa eta grazia iragartzen ditu, kasu eginez nori mintzo den.

Gero ezkondueri gomita egiten diote, ixilik otoitz egin dezaten eta Jainkoaren aitzinean erreberri ezkontzan sailduki bizitzeko xedea. Erran dezake gisa huntako hitza:

**Ezkontzako sakramenduak**  
ezin hautsizko lokarriz bat egin zintuzten egunaren urteburu huntan,  
orduan hartu xedeak Jainkoaren aitzinean berritu nahi dituzue.  
Jainkoaren graziak zuen batasuna azkar dezan,  
Jainko Jaunari dei egiozue.

Orduan ezkonduak ixilik berritzen dute beren hitza. Ez da beraz hemen elkarri baiaren emaitzaren berritzerik egin behar, behin betikotz egina baita.

### ***EZKONDUEN ESKER EMAITEA***

Nahi badute, eskerrak eman ditzazkete molde huntan:

Senarrak :

**Benedikatua zu, Jauna,**  
zure maitasunarengatik hartu nuen I... emaztetzat;

Emazteak :

**Benedikatua zu Jauna,**  
zure maitasunarengatik hartu nuen I... senartzat.

Biek batean:

**Benedikatua zu, Jauna :**  
gurekin izan zira bai zorionean bai ezinbertzean.  
Eta orai ere zuri otoitzez gaude :  
begira gaitzazu elkarren amodioan  
gizadiarekin egin duzu batasunaren lekuko leial izan gaitzen.



Apezak :

Jaunak zaint zaitzatela zuen biziko egun guzietan.  
Zuekin izan bedi zorionean, eta zuen lagun ezinbertzean,,  
eta zuen etxearen gainera ixur ditzala bere benedizione nasaiak.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.  
Amen .

### ***ERAZTUNEN BENEDIKATZEA***

Apezak, hala behar bada, otoitz hau egiten du :

Saindu zazu eta emenda, Jauna, zure zerbitzarien amodioa:  
eraztun hauk elkarri eman ziozkaten  
beren leialtasunaren seinale bezala;  
beti gehiago ukan dezatela ezkontzako sakramenduaren grazia.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez .  
Amen .

Apezak eraztunak intsentsa ditzazke.

Eraztunak birmoldatuak izan badira, apezak otoitz hau egiten du :

Benedika + zazu eta saindu egin, Jauna,  
zure zerbitzarien amodioa :  
eta eraztun hauk beren leialtasunaren seinale baitituzte,  
oroitaraz diezotela ere beren amodioa eta sakramenduaren grazia.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.  
Amen .

### ***FEDEDUNEN OTOITZA***

Mezan egiten ohi bezala, edo nahiago bada, hemen emana den bezala :

Jainko Aita ahalguzidunaren urrikalmenduari dei egin diezogun.  
Guziz ona baita, nahi izan du  
ezkonduen amodioa, leialtasuna (eta emankortasuna)  
gizadia salbatzen duen Batasunaren idurirat izan ditezen  
mendeek dirauteno.

*Denek :* Berri zazu, Jauna, zure zerbitzarien fidelitatea.

*Edo :* Emozute, Jauna, zure indarra eta bakea.



Jainko Jauna, diren guzien kreatzailea,  
 goosten eta benedikatzeko zaitugu :  
 hastapenean, gizona eta emaztea zuek egin dituzue,  
 bizi eta amodiozko elkarte bat molda dezaten.  
 Eta eskerrak emaiten daukitzugu  
 I... eta I...-ren familia benedikatu baituzue  
 Kristoren eta Elizaren arteko batasunaren iduriko izan zadin.  
 Bihotz onez ikus gaur ere zure zerbitzari hauek :  
 elkarrekin bat zaindu dituzunaz geroz  
 biziko zorion eta ezinbertzeetan;  
 oraino ere azkar atxik-azu bat egiten dituen lokarria,  
 emenda zazu hauen amodioa eta bakean finka zazu,  
 ( beren haurrak inguruan dituztela )  
 zure benedizioa beti goza dezaten.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez

Denek bakea elkarri eman dezakete.

Biek, ezkontze-meza bezala, Kristoren Gorputz-Odolak hartzen ahal dituzte.

### ***AZKEN BENEDIZIOEA***

Jainko Aita ahalguzidunak  
 eman diezazuela bere bozkarioa.

Amen.

Jainko Seme bakarrak begira eta zaint zaitzatela  
 zorionean eta zoritxarrean.

Amen

Jainko Izpiritu Sainduak ixur dezala beti  
 bere maitasuna zuen bihotzetara.

Amen

Eta zuek, hemen zirezten guziak ere,  
 benedika zaitzatela Jainko ahalguzidunak,  
 Aitak eta Semeak eta Izpiritu Sainduak.

Amen

## **OTOITZALDIA**

### ***BI KATEKUMENOREN***

### **EDO**

### ***KATEKUMENO BATEN ETA GIRISTINO EZ DEN BATEN***

### ***EZKONTZA ZIBILAREN ONDOTIK***

Garrantzizkoa da azpimarratzea holako ezkontza egiazkoa dela, eta sakramendu bilakatuko dela , bataioko sakramendua hartuko dutelarik.

Eta beste katekumenoak bataiorako bidean direlarik, ezkontza zibila une egokia litake talde guziarekin otoitzaldi baten egiteko. Otoitzaldiaren buru: apez bat, diakre bat, edo katekista bat, apezpikuak talde horren laguntzeko izendatua duena.

Otoitzaldiaren buru dena gisa huntako hitzekin taldeari mintzo zaio ::

Adiskide maiteak,  
 bataiatuak ez diren gizon baten eta emazte baten arteko  
 ezkontzaren giza-balioa eta ezin desegina  
 Elizak onartzen ditu,  
 batek besteari libreki eta bortxarik gabe  
 hitzemaiten dutelarik elkarri leial egonen direla bizi guzian,  
 eta ezkonduen [burasoen] eginbideak beteko dituztela.

Gero ezkondueri erraiten diote :

Biak katekumeno balinbadira:

I... eta I... , Kristori jarraikitzea erabaki duzue,  
 eta haren heriotze eta piztean bataiatuak izaitera  
 prestatzen ari zirezte.

Gero, segitzen du ( biak edo bat bakarrik katekumeno izan dituen ).

[ I... eta I... ] Ezkondu zireztelarik, elkarri hitzeman duzue  
 maitatzea eta leial egoitea zuen bizi guzian.

Giristinoentzat,

amodio eta leialtasun horien iturria Kristo baitan dago.

Eta beraz, orai biltzen gaituen otoitzaldiaren bidez  
 gogotik gomendatzen diogu zuen kuplea Jainkoaren maitasunari.  
 Otoitz egiten diogu  
 zuen amodioa beti ederrago eta azkarrago izan dadin,  
 Jaunak lagunt zaitzaten elkarri leial egoiten,  
 eta ezkontzaren eginbideak elkarrekin betetzen.

Gero ixtant bat ixilik egon-eta, segitzen du:

Aita guziz saindua, munduaren kreatora,  
 gizona eta emaztea zure idurirat egin dituzu,  
 eta heien arteko batasuna benedikatu :  
 I... et I...-rentzat apalik otoitz egiten dautzugu.  
 Hauen kupleak ukan dezala zure maitasun indartsuaren sustengua,  
 eta zure leialtasunaren laguntza.  
 Kausi dezatela zoriona elkarri emanaz,  
 zuzentasunean ereman dezatela beren bizia  
 [ eta buraso zintzo izan ditezela ] .

Nahi bada, ezkontuek berek otoitz labur bat egin dezakete, gisa huntako hitzak erranez:

Gure Jainko Jauna, zorion egun huntaraino ekarri gaituzu,  
 eta gure esker ona erran nahi dautzugu.  
 Bat bestearen gomendio eman gaituzu :  
 orai, elkarrekin gure amodioa gomendatzen dautzugu.  
 Jauna, hau dautzugu eskatzen:  
 bat atxik gaitzazu, zure bakean eta elkarri leial biziak dirauno.

Biak katekumenoak badira, erran dezakete ere:

Lagunt gaitzazu bataiorako gure bidean,  
 eta handiaraz zazu gure bihotzean bataioaren gutizia.

Bataio aitzineko bidean, 'Gure Aita " jadanik emana izan bazaiote, otoitzaldia burura daiteke  
 denek batean " Gure Aita " erranez.

Eta gero otoitza bururatzen da, erranez:

**Benedika dezagun Jainko Jauna !**

*Denek :* Eskerrak Jainkoari !

## **OTOITZALDIA**

### ***BI BATAIATU BERRIRENTZAT***

#### **EDO**

### ***BATAIATU BERRI BATEN ETA HAREN EZKONLAGUNARENTZAT***

#### **BATAIO EGUNEAN , EDO ONDOKO IGANDE BATEZ**

Bataiatu berria legez eta bidez ezkondua bada jadanik, ezkontza hori egiazkoa da. Biak orai bataiatuak balinbadira, heien ezkontza oraidanik sakramendu da bientzat. Eta ezkontza horren benedikatzea ez zaiote ukatzen ahal.

Bataiatu berria katoliko batekin ezkondua balinbada, benedikatze hori jadanik ukana dute, eta ez da erreberitzen.

Benedikatze hori noiz eman?

- Edo bataio egunean, jantzi xuriaren eta argiaren erritoen ondotik. Apezak, edo diakreak, hautatzen du liburu huntan diren benedikatzeetarik bat, edo hemen ezarria dena.
- Edo bataio ondoan ( “mystagogia” garaian ), igandeko mezan, homiliaren ondotik, edo mezako azken benedizione aitzinean.

Apezak, edo diakreak, eskuak juntaturik, otoizerako deia egiten du gisa huntako hitzekin :

Eta orai, gure otoitzez eska dezagun  
 Jainkoaren benedizioea ezkondu hauientzat :  
 Bataioaren graziak uraz eta Izpiritu Sainduz biziberritu ditu;  
 hauen ezkontza Kristoren maitasunean indarberritua izan dadila.

Denek ixtant bat otoitz egiten dute ixilik.

Gero apezak, edo diakreak , eskuak heien gainera hedaturik, erraiten du :

Jauna, gure Jainkoa,  
 zeru-lurren eta bizidun guzien Egilea,  
 gizona eta emaztea zure idurira egin dituzu.  
 Zure maitasun egintzetan parte izan dezaten,  
 maitatzeko ahala duen bihotza eman diozute  
 Eta nahi izan duzu egun, eliza huntan,  
 ( *edo, bataio ondoko egunetan* : bataioaren bidez )  
 I... eta I...-ren batasuna sakramenduaren graziak kontsekra zezan.

Nahi duzu orai, beren familia eraiki dezaten,  
egunetik egunera elkar maiteago izaitera lehia ditezen,  
Kristo Jaunaren etsenpluari jarraikiz,  
Gurutzean hiltzeraino maitatu baigaitu.  
Benedika, zaint eta indarrez bete zazu  
ezkondu hauien amodioa.  
Amodio horri esker elkarri leial egon ditezela,  
zoriontsu izan, eta Kristorenganik ikas dezatela  
nork bere burua maiteari emaitiak nolako bozkarioa sortzen duen.  
Jauna, hauien maitasuna zurearen idurikoa izanik,  
biziaren iturri egin dadila;  
beren bihotza eta etxea besteentzat zabalik atxik ditzatela.  
Beren amodioan finkatuz, Izpiritu Sainduaren indarrarekin  
lehia ditezela mundu xuxenago eta goxoago baten eraikitza,  
eta hola beren gizon eta giristino eginbideen leialki betetzera.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Amen

## AURKIBIDEA

Ezkontzako Sakramendua mezarekin	1
Ezkontzako Sakramendua mezarik gabe	25
Katoliko baten eta Katekumeno baten edo giristino ez den baten ezkontza	43
Irakurgaiak	53
Fedearen aitormena	77
Ezkonberrien benedikatzea	80
Fededunen otoitza	85
Ezkonberrieri eskainia den oroitzapena	87
Ezkongaien benedikatzea	89
Ezkont urteburuetako mezan ezkonduen benedizioea	96
Otoitzaldi berezia bi katekumenoren <i>Edo</i> katekumeno baten eta giristino ez den baten Ezkontza zibilaren ondotik	100
Otoitzaldia <i>bi bataiatu berrientzat</i> Edo <i>Bataiatu berri baten eta haren ezkonlagunarentzat</i> Bataio egunean, edo ondoko igande batez	102